



Hizkuntza plangintza ikastaroa. Internet bidezko graduondokoa

Ikaslea: Saioa Lizarralde Urrutia

SAKONTZE EGITASMOA:

EUSKALGINTZA ETA FEMINISMOAREN ARTEKO SINERGIAK

Tutorea: Estibaliz Amorrortu Gomez

“Menturari hiru dohain zor dizkiot: emakume sortu izana, klase sozial apalekoa, eta herrialde eta kultura zapaldukoa, eta hiru bider errebelde izateko aukera eman izana”.

Maria Mercè Marçal poeta katalanaren *Dibisa* poema (Itxaro Bordak itzulia, Susa)

LABURPENA

Aliantzak josteko berezko joera du feminismoak: ia ezaugarri du bestelako zapalkuntzak jasaten dituztenekiko ahizpatasuna, borroken uztarketa. Eta Euskal Herrian agertu zaio bidea urratzeko eremu berri bat, ugaritzen ari baitira feministen eta euskal hiztunen arteko aliantza aldarrikatzen duten ahotsak. Lan honek ahots horiek jaso nahi izan ditu. Izan ere, lan honen helburua da euskararen normalizazioari begira eta erdaldunen mundua aktibatzekeo, feminismoan interesgarriak eta baliogarriak izan daitezkeen estrategiak eta diskurtsoak aztertzea eta garatu den oinarri teorikoa baliatzea aipatutako erdaldunen mundu hori aktibatzekeo saiakeran urratsak emateko.

El feminismo tiene tendencia propia a crear alianzas: es casi característico en él la hermandad con otras represiones, la unión entre luchas. Y en el País Vasco le ha surgido otro terreno donde abrir camino, ya que son cada vez más las voces que reivindican la alianza entre el feminismo y los vasco-parlantes. El presente trabajo ha pretendido recoger todas esas voces, ya que el objetivo del mismo es analizar las estrategias y discursos que puedan ser de interés y de valor en el feminismo, de cara a la normalización del euskera y a la activación del entorno castellanoparlante, así como valerse de la fundamentación teórica desarrollada para avanzar en el esfuerzo para conseguir dicha activación.

Feminism has its own tendency to create alliances: it is nearly characteristic of itself the sisterhood it has with other repressions, the union between fights. And in the Basque Country there is another field in which feminism can pave the way for, since there is a growing voice calling for an alliance between feminism and Basque speakers. The current paper has tried to gather all these voices, since the actual aim of it is to analyze the strategies and speeches that can be of interest and value for feminism, in regards to the standardization of the Basque language and the activation of the Spanish speaking environment. And also to take advantage of the theoretical foundations developed in order to move forward in the effort to gain the aforementioned activation.

AURKIBIDEA**LABURPENA**

| | |
|--|-----------|
| 1. SARRERA | 1 |
| 2. LANAREN TESTUINGURAKETA | 3 |
| 2.1 Zer da feminismoa? | 3 |
| 2.2 Zer da gaur egun feminista izatea? | 3 |
| 2.3 Feminismoa Euskal Herrian | 4 |
| 2.4 Feminismoa eta euskalgintza | 7 |
| 3. MARKO TEORIKOA | 9 |
| 3.1 Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe? | 9 |
| 3.2 Zergatik euskararen eta feminismoaren arteko aliantza bat? | 12 |
| 3.3 Euskalgintza eta feminismoa | 15 |
| 3.4 Gizonak eta feminismoa: Botereari uko egiteko ordua | 18 |
| 4. ELKARRIZKETA PERTSONALAK | 21 |
| 4.1 Elkarrizketetatik jasotakoak | 21 |
| 5. ONDORIOAK..... | 30 |
| 5.1 Lanerako ildoak..... | 30 |
| 6. BIBLIOGRAFIA | 35 |
| 7. ERANSKINAK | 37 |
| 7.1 Lorea Agirrerri elkarrizketa | 37 |
| 7.2 Mari Luz Estebani elkarrizketa..... | 38 |

1. SARRERA

Lan hau egiteko gai hau aukeratu izana, kide naizen EMUN Koop. E.-eko barne proiektu edo berrikuntza proiektu batetik dator. Proiektu honetan lanean gabiltzan lantaldeak, EMUNen aspalditik daukagun kezka bati irtenbidea bilatzea genuen helburu, hau da, Euskara Planen metodologiaren barruan erdaldunen parte hartzea nola aktibatu dezakegun argitzea. Normalean erdaldunen parte hartzea ezagutzatik bakarrik bideratu izan da baina hau da bide zuzena? nola egitea komeni da?

Enpresetan ditugun Plan egonkor samarretan, arazo batekin egin izan dugu topo, hau da, erdaldunekin edo ez dakigu zer egin edo ez dugu asmatzen. Zerbait egin beharra sentitzen dugu, saiakera batzuk egin ditugu baina kontua izaten da azken finean euskara eskolak proposatu eta ikasi nahi baldin badute ondo eta bestela hor geratzen garela. Konturatzen gara arlo horretan hutsune handi samarra daukagula. Horregatik, urte hauetan horri buelta batzuk eman nahian ibili gara eta beste ekintza batzuen artean, hausnarketa saio batzuk ere antolatu izan ditugu erdaldunen kontzientzian eragiteko. Baina ikusten dugu horrek nolabaiteko aktibatze maila txiki bat eta batzuegan sortzeko balio duela baina gero hori galdu egiten dela.

Bilatu nahi dugu nola jokutzen den edo zein estrategia interesgarri eta baliogarri izan dezakegun gutxituak diren beste alor edo diziplina batzuetan, euskararen normalizazioari begira eta erdaldunen mundu hori aktibatzeko. Eta hortik dator hain zuzen ere, proiektu honetan feminismoarekin egiten den sinergia lantzeko interesa. Izan ere, ikusten ditugu loturak feminismoarekin eta feminismoak egin duen ibilbidean erabili dituen diskurtso eta estrategiak baliagarriak izan daitezkeela uste dugu.

“Zer” egin behar den horretan zentratu beharrean, betiere hau ahaztu gabe, “nola” egin dezakegun horretan zentratzea eta hortik bilatzea irtenbidea. Nola garatu behar dugu diskurtsoa? Aditu desberdinek planteatzen duten hori nola lortu daiteke? Zer egin behar dugu hori lortzeko?

Jakin badakigu azken aldian, ugaritzen ari direla feministen eta euskal hiztunen arteko aliantzak aldarrikatzen duten ahotsak. Horregatik, ondorengo orrietan jasotako lanak, orain arte euskalgintza eta feminismoaren arteko sinergiaren inguruan esandakoa jaso nahi du.

Uste dut gaian sakontzeak, feminismoaren inguruko ezagutza eta ikuspegia aberasteaz gain, euskararen sustapenean eragiteko ikuspegi eta bide berriak zabaltzen dituela.

Beraz, lana osatu eta testu-inguratzeke, lehenengo euskalgintza eta feminismoaren arteko sinergiaren inguruan hainbat aditu eta arituk esandakoa jasotzen saiatu naiz. Ondoren, bertan jasotakoak borobildu eta kontrastatzeko Lorea Agirre eta Mari Luz Esteban elkarrizketatu

ditut. Eta azkenik, aurrera begira euskalgintzak feminismotik kontuan hartu beharrekoak zeintzuk diren zerrendatuko ditut.

Proposamen hau garatzeko ezinbestekoak izan dira Lorea Agirre eta Mari Luz Estebanen ekarpenak, horregatik izugarri eskertzen diet hasieratik eskaini didaten laguntza eta prestutasuna. Eskertzekoa baita Esti Amorrortuk tutore gisa eskainitako gertukotasuna, laguntza eta prestutasuna.

2. LANAREN TESTUINGURAKETA

Lan honetan euskalgintza eta feminismoaren arteko sinergiak jasotzen ahalegintzen den neurrian, garrantzitsua iruditzen zait feminismoaren oinarritzko kontzeptu batzuk argitzea eta arrazoi horregatik, ondorengo lerroetan, mugimendu honen oinarritzko kontzeptu batzuk aurkeztuko ditut motzean.

2.1 Zer da feminismoa?

Feminismoa (Gloria Solé: 2011. *Historia del feminismo: siglos XIX y XX*) emakumeen esperientzian oinarritutako eta iraganeko eta gaur egungo erlazio sozialak kritikatzeko dituen teoria sozial eta praktika politikoen multzo bat da. Gehienbat, feminismoak gizonen eta emakumeen arteko eskubideen ezberdintasuna kritikatzeko eta emakumeen eskubideen sustapena aldarrikatzeko da. Teoria feministek sexuaren, sexualitatearen eta botere sozial, politiko eta ekonomikoaren arteko erlazioa zalantzan jartzen dute.

Buruzagi feminista asko emakumeak izan diren arren, emakume guztiak ez dira feministak eta feministak guztiak ez dira emakumeak. Feminista batzuek gizonen mugimenduko garrantzizko postuetatik at egon behar luketela uste dute, baina gehienek gizonen elkartasuna bilatzen dute.

Feminismoa mendebaldeko gizarteetako mugimendua izan da batik bat XX. mendean. Feministek mugimenduak gainontzeko herrialdeetan XXI. mendean eragitea espero dute.

Feminismoa ez dago inolako talde, praktika edo gertakari historikora lotuta. Taldeen arteko eskubideen ezberdintasunari buruzko kontzientzia hartzean eta zerbait egin behar denaren sinismenetik sortzen da. Feminismoaren mota asko daude.

Feminismoaren azpi-taldeetako batzuk honakoak dira: feminismo kulturala, feminismo erradikala, ekofeminismoa, feminismo liberala, ezberdintasunaren feminismoa, feminismo marxista, feminismo separatista, feminismo filosofikoa eta feminismo kristaua (Nuria Varela: 2005. *Feminismo para principiantes*).

2.2 Zer da gaur egun feminista izatea

Kontzeptuaren esanahia hain nahasia den garaiotan, instituzioek emakumea babesteko plangintzak egiten dituzte, esparru askotan emakumearen egoerak hobera egin du azken hamarkadatan eta horrek guztiak emakumearen aldeko borroka apaldu eta berdintasunerako bide egokian goazela pentsarazi dio gizartearen zati handi bati. Badira, hala ere, «berdintasun» ideia hori saldu digutela eta benetako aukera berdintasunera

iristeko beharrezko aldaketa emateke dagoela dioten ahotsak (Agirrezabala Marta, Amuriza Xabier, Barcenilla Miguel Angel, Erasun Arantxa, Gratakos Isaure, Jurado Nekane, Legade Ann-Marie, Frank Roslyn M., Stürtze Alizia eta Zirrilda (2009). *La mujer en Euskal Herria. Hacia un feminismo propio*). Feminismoa eta nazionalismoa bateragarriak ote diren eztabaida zaharra alboratu eta emakumearen aldeko borroka abertzaletasunetik egin behar dela argi dute hemen bildutako ahalegin berriek. Gure iraganeko erroak ezagutzuz, komunikazioa eta elkarlana erraztuz, baloreak eta kontzientzia landuz, emakumeen aldeko jarduna berbideratzeko garaia dela diote.

2.3 Feminismoa Euskal Herrian

1973a izan zen mugarrria. Ipar Euskal Herriko hainbat emakume antolatzen hasi ziren ezker mugimenduetatik autonomoak ziren taldeetan. Urtebete geroago heldu zen hautsak harrotuko zituen manifestua: *Euskal Emazteen Panfletoa* (Agirrezabala Marta, Amuriza Xabier, Barcenilla Miguel Angel, Erasun Arantxa, Gratakos Isaure, Jurado Nekane, Legade Ann-Marie, Frank Roslyn M., Stürtze Alizia eta Zirrilda (2009). *La mujer en Euskal Herria. Hacia un feminismo propio*). Hor, mugimendu politiko abertzaleetan eta euskaldunetan sentitutako erabakitze ahalmen eskasa salatu zuten, besteak beste. Paraleloki, puztuz zihoan nor bere buruarengan erabakitze eskubidearen aldeko borroka, abortatzeko eskubidearen aldeko mugimenduari esker. Hala, zenbait talde feminista eratu zituzten Nafarroa Behereko herri batzuetan zein Baionan.

Hego Euskal Herrian, baina, klandestinoagoa izan zen dena, ezkutuagoa eta berantiarragoa. Franco hil arte ez zuen arnasa hartu ia. Aurretik, bestelako talde eragileetan sartu ziren feministak: auzo elkarteetan, esaterako. Diktadoreari lur eman ostean, berriz, amnistiaren aldeko aldarriak, sexualitate askeak eta abortatzeko zein bereizteko eskubideen aldarriak indartu ziren.

Pauso berean mugitzen ez ziren Iparralde eta Hegoalde 1977an batu ziren, Leioan (Bizkaia), Euskal Herriko I. Jardunaldi Feministak egiteko. Gaiak: masturbazioa, lesbianismoa, patriarkatua eta hezkuntza, gehienbat. Eta eztabaidak nahasiak bezain askotarikoak: subjektu politikoa izan zen mintzagai nagusia. Militantzia bikoitza edo bakarra izan behar zen. Adostasunik gabe, iritzi ezberdintasunarekin aberastu zen orduko testuingurua. Orduko hazien kimuak balira bezala sortu ziren 1970eko hamarkadaren amaieran talde feministak, Bizkaiko Emakumeen Asanblada (1976), Arabako Emakumeen Asanblada (1976), Nafarroako Koordinadora Feminista (1978) eta Donostiako Emakume Asanblada (1978).

1980ko hamarkadan buelta eman zuen txanponak: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako indarra mantso, eta goraka hasi zen Bizkaikoa, Nafarroakoa, Arabakoa eta Gipuzkoakoa. PSOEk irabazi zituen Espainiako hauteskundeak 1982an, eta ingurumari

horretan, NATOren kontra ekin zioten Hegoaldeko feministek, bai eta etxeko lanen banaketa aldarrikatzeari ere, lesbianismoaren aldeko borroka ahantzi gabe.

Bigarren topaketa feministak egin zituzten. Beste behin, 3.000 lagun batu ziren. Hegoaldeko lau herrialdeetan eskuratu zuen sasoiaren adierazgarri. Orduan, subjektuen aniztasunean paratu zuten ikusmira: ordura arte, emakumea esaten zuten, eta ordutik aurrera, emakumeak. Ez zen nolana hiko aldaketa izan. Izan ere, zapalkuntzen gurutzatzearen inguruan mintzatzeko hasi ziren; ondorioz, ardatzen inguruko egiturak areagotu ziren: lesbianen kolektiboak, emakume gazteenak, etxeko langileenak, okupatzaileenak...

Hazitako aparrak, baina, behera egin zuen hamar urteren buruan: 1990ean zatikatuta zegoen mugimendu feminista. Ezinegon horren adierazle izan ziren 1994an egindako topaketak. 1.500 lagun batu ziren, eta tentsio handikoak izan ziren. Botereaz egin zuten solas. Gero, sakabanatu egin zen orduko mugimendua. Gazte feministek beren kabuz jardunaldi propioak egin izana ere adierazle da. Antimilitarismoaz, lesbianismoaz eta sexualitateaz jardun ziren gazteak.

2000. urtea giltzarria izan zen. Heteropatriarkatu neoliberalari aurre egiteko asmoz, mundu osoan zer edo zer egin behar zela ebatzi zuten. Emakumeen Mundu Martxa antolatu (Euskal Herriko 2000. urteko emakume martxarako plataforma: 2000. *2000 arrazoi martxan jartzeko*) zuten orduan mundu osoan hainbat taldek pobrezia eta indarkeria sexistaren aurka. Euskaldunak ere hortxe egon ziren.

Eta urteetako apaldiaren ostean, loratu egin zen berriz ere feminismoa. Taldeak ugaritu egin ziren, eta gaur egunera arte mantendu da goranzko joera. Korrante horren fruituetako bat da Bilgune Feminista bera sortu izana, 2002an. Bestalde, giro baikor horren olatuan, 2008an, Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak prestatu zituzten feministek: erakundeetan parte hartzea, indarkeria, sexu identitatea eta gorputza. Lau horiek izan ziren erdigunean jarri zituzten ildoak. Orduantxe esnatu ziren euskal transfeminismoaren ideiak ere, binomioak puskatu eta subjektu iraultzaile feminista berriak margotzeko xedez. Egun, zabalak bezain askotarikoak dira euskal feminismoak.

- **1975** Talde txikiak sortu ziren eskualdeetan eta asanbladak osatu
- **1976** Euskal Emazteak Beren Askatasunaren Alde sortzen da
- **1978** Euskal Emakumeen Lehenengo Jardunaldiak
- **1981** Aizan!
- **1984** Euskal Emakumeen Bigarren Jardunaldiak
- **1987-93** Filosofia fakultatearen barruan talde feminista sortu zen

- **1994** Euskal Emakumeen Hirugarren Jardunaldiak
- **2002** Euskal Herriko Bilgune Feminista
- **2005** Emakumeen Martxa
- **2007** Gazte Termometroa

Eta feminismoaren ostean...

Posfeminismoa, mendebaldeko emakume txuri, heterosexual eta klase ertainaren berdintasun legala lortzera baino harago doana. Mugimendu honetan, etnia, generoa eta klase ezberdintasunak eragiten dituzten arraiak garaitzen dira.

Eta garai honetan sortzen da, ezarritako etiketen aurka eta izate eta munduan egoteko modu librearen alde egiten duen giza korrontea eta teoria, Queer teoria hain zuzen ere.

· “Queer teoria”

Queer teoria (Coral Herrera Gómez: 2011. *Más allá de las etiquetas*) pertsonen genero eta sexualitatearen inguruko ideia multzo bat da, non baieztatzen duen generoak, pertsonen identitate sexualak eta pertsonen orientazio sexualak, itxurazko eraikuntza sozial eta arketipokoaren emaitza direla eta, beraz, bereziki edo biologikoki ez daudela giza naturan inskribatuta, baizik giza forma aldagarri batzuk direla. AEBn 90 hamarkadan identitate sexualaren mugimenduen barruan kokatzen da.

Queer teoriak indibiduen sailkapena errefusatzen du kategoria finko eta unibertsaletan, “gizon”, “emakume”, “heterosexual”, “homosexual”, “bisexual”, “transexual” etab. bezala, kontsideratzen baitu kultura batek inposatutako murrizte batera lotuta daudela, non heterosexualitatea nahitaezkoa den eta itxurazko kategoria hauek benetan, motibazio erotikoa-natural ugari ezkutitzen dituela, eta honegatik, giza natura sexual bakarrari (sexologia) erantzuten diotela, oraindik erabat teorizatu gabea.

Genero kontzeptu klasikoaren kontra, normal gisa onartzen den “heterosexualitate naturala” bereizketatik hasten dena, “anomalo”-ren aurkakoa, Queer teoriak baieztatzen du “identitate sexual” guztiak anomaloak direla, heterosexualitatea barne.

Teoria honek, psikologia, filosofia, antropologia eta soziologia tradizionalaren sailkapen giza-sexualak kritikatzeko ditu, normalean segmentazio paternalistaren patroia bakar baten erabileran oinarrituak, izan klase sozialekoak, generokoak, etnikoak edo nazionalitate poskoloniala, eta sostengatzen du, natura sexualagatik baldintzatuak dauden identitate sozialak, modu konplexuagoan lantzen direla, talde askoren, korronte eta irizpideen intersekzio gisa.

Queer agenda handia, benetako giza natura sexualaren plastikotasuna babesten duten teorien eramaile gisa onartutakoan, haren izena arian-arian aldatzeaz gain (non sexua ez den moral terminoetan ulertzen, baizik erotismoaren terminoetan, posizio hierarkikoak eta hasierak/ erantzukizun sozialak) iradokitzen du baita, itxurazko eta mugatutako identitate sexualen desmitifikazioa, heterosexualak edo homosexualak baitira soilik egindako ekintzak, eta ez dira eta ezin dira izan, bertan parte hartzen duten pertsonak.

2.4 Feminismoa eta euskalgintza

Mari Luz Estebanen 2012ko Udaltop, Udaletako euskara-zerbitzuen IV.topaketako izenburua “Feminismoa, euskaragintzarako gogoeta-tresna?” izan zen. Bere hitzaldia bost atal desberdinetan banatu zuen:

- Euskal Herriko feminismoaren eraldaketak eta eskarmentuak
- Politika feministen berriztapena eta jabekuntza kontzeptua
- Agente/biktima bereizketa eta prozesuen azterketa
- Gorpuztasuna ikerkuntza eta politika

Topaketa horretan azaldu zuen bezala, Euskal kulturgintzaz ari garenean ez ditugu aintzat hartzen ez mugimenduaren ezta teoria feministaren nondik norakoak (ezta beste gizarte mugimenduenak ere ez). Eta alderantziz, feminismoan murgildurik gaudenean ez diogu erreparatzen euskalgintzan hausnartzen edo teorizatzen denari. Zerikusirik izango ez balute edo testuinguru sozial eta kultural bereko fenomenoak izango ez balira bezala, nor bere eremu teoriko edo enpirikoan finkaturik. Kanpoko eta nazioarteko adituak irakurri ohi ditugu, bai, baina gure inguru hurbilean dagoen baina gure alorrekoa ez den gogoetari muzin egiten diogu, gehienetan behintzat, ziur hor ez dugula probetxuzko ezer topatuko.

Zubi lana egin zuen berak, mugimendu feministaren hainbat zertzelada eman zituen, euskalgintzarako baliagarri izan daitezkeen etengabe galdetuz. Ondoko elementuekin ariketa egin dezakegu:

- Emakumeak gizonarekiko lege berdintasuna lortu du; hala ere, legeak mugak ditu, erreparatu bestela Irun eta Hondarribiko alardeetan gertatutakoei.
- Jabekuntza kontzeptua. Hego Euskal Herrian, 2003an hasi ziren lehenengo jabekuntza eskolak. Helburua zen emakumeek desberdintasun egoeraz kontzientzia hartzea eta parte hartze politikoa bultzatzea. Urratutako eskubideak aldarrikatzea ondo zegoen, baina zer egiten du norbanakoak, eta zer kolektiboak, eguneroko bizitzan? Lau egiteko zituzten jabekuntza eskolek: eskubideen kontzientzia hartu, talde sententzioa indartu, feminista solteak erakarri eta feminismoaren aurpegi anitzak elkartu.

- Biktima eta agentea. Emakumea biktimatzat hartzeak bi gauza dakartza; ekintzarako ahalmena kentzen zaio eta laguntza kanpotik helduko dela aurreikusten da. Asko ala gutxi, beti du boterea norbanakoak eta ekintzarako ahalmen hori baliatu behar da.
- Gorputzez gorputz. Bizitzaren haragitasuna begiratzea proposatzen du Estebanek. Diskurtsoari eta teoriari asko begiratu diegu eta gutxi gorputzari. Ariketa politikoa, ariketa fisiko eta emozional bihurtu behar da. Norbanakoa beste era batera ikusteko modua da.

3. MARKO TEORIKOA

Feminismoak euskalgintzari zein ekarpen egin diezaiokeen aztertzeko, hainbat aditu eta arituk esandakoa jasotzea garrantzitsua iruditu zait eta ondorengo lerroetan, artikulu, topaketa, elkarrizketa, mahai-inguru eta topaketetan jasotakoa modu laburtuan aurkezten saiatuko naiz.

3.1 Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?

Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe? solasaldia eskaini zuten batetik, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel eta Ainhoa Beolak Arrasateko Emakumeen Txokoan (2014ko urriaren 30ean egin zuten solasaldia Arrasateko Emakumeen Txokoak antolatuta Lorea Agirre, Idurre Eskisabel eta Ainhoa Beolak eta Aitzibere Aranburuzabala berriz moderatzaile lanetan ibili zen. Onintza Iruretak bere blogean jaso zituen bertan esandakoak) .

Eta bestetik, otsailaren 24ean Azpeitiko Emakumeen Txokoan Lorea Agirre eta Idurre Eskisabalek gai beraren bueltan aritu ziren (2015eko otsailaren 24an, gai berdina ardatz hartuta, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabalek solasaldia egin zuten. Oraingoan Eneritz Albizuk egin zituen moderatzaile lanak. Uztarrarian argitaratu zen solasaldi honen inguruko artikuluan eta sarean dago irakurgai). Bietan, moderatzaile lanetan ibili zirenek hainbat gai jarri zizkieten hizlariari mahaigainean.

Hitzaldien abiapuntua izenburua bera izan zen, eta Idurre Eskisabel kazetariak "intuiziozko erantzuna, orokorra eta unibertsa" eman zion egindako galderari: "Noski izan zaitezkeela feminista euskaltzale izan gabe. Ingurura begiratu besterik ez dago. Ni ez naiz nor inori feminista den edo ez den esateko. Baina ez dit balio erantzun horrek. Ni euskaltzalea naiz, feminista naizelako, eta alderantziz. Bi arloetan izandako bizipenetatik abiatuta, beti izan ditut bi horien erdiguneak debekatuta, bat eta bestea nintzelako. Hau da, gaztetxo nintzela futboleko ibiltzen ez zidaten uzten neska nintzelako, txiste bera nik edo besteak egin, grazia gehiago zuen bestearenak. Euskaltzaletasunaz geroago jabetu nintzen, baina 'guaia' izateko zailtasunak izaten nituen euskaraz aritzea hobesten nuelako".

Eskisabelek dioenez, beraien kasuan uztardura dute femismoak eta euskaltzaletasunak, bi eremuetan emakume izatea "borrokalekoa" delako. "Emakume eta euskaldun garen menperakuntzak arma perbertsoak sortzen dizkigu. Emakume izanda zaude zauden tokian, dituzun ezaugarriengatik. Emakumea beti lotu da naturarekin, emozioekin, etxeokarekin eta ahul izatearekin. Euskalduna ere basarekin, naturarekin, emozionalarekin, etxe zokoarekin zein ahularekin lotu da, eta plazarako beste ama-hizkuntza bat behar dela dirudi".

Ainhoa Beolaren iritziz, bistan da feminista izan zaitezkeela euskaltzale izan gabe. Alabaina, biak iruditzen zaizkio oinarrizko eskubideen aldeko borrokak, eta haien artean komunikazioak egon beharko baluke ere, harrigarria egiten zaio hala ez gertatzea, harrigarria

elkarlanik ez egotea. Latinoamerikan, feminismoa eta indigenismoa oso bat datoz, eta Afrikan feminismoa eta ekologismoa. Euskal Herrian bakoitza bere gotorlekuan dagoela uste du, nahiz eta zorionez, halako egoera gainditzen hasiak garen. Beolak uste du feminista, euskaltzale, ekologista eta internazionalista izateak logika lukeela.

Lorea Agirrek justizia sozialaren markoan kokatu zituen hemen ditugun borrokak, alegia, feminismoa eta euskararen normalizazioa, eta borroka batean hasi eta bestera jauzi egitea logikoa litzatekeela dio. Gizarte kapitalistaren, patriarkalaren eta monokulturaren oinarritutakoaren kontra edozein borroka ahizpak direla uste du.

Azken hiruzpalau urtetan borroka horien arteko balizko aliantzez hitz egiten ari garela dio Agirrek, baina gaia ez dela hain berria erakusteko Maria Mercè Marçal poeta katalanaren *Dibisa* poema (Itxaro Bordak itzulia, Susa) irakurri zuen: "Menturari hiru dohain zor dizkiot: emakume sortu izana, klase sozial apalekoa, eta herrialde eta kultura zapaldukoa, eta hiru bider errebelde izateko aukera eman izana".

-gintzak eta emakumeak

Euskalgintzan eta gainerako -gintzetan beste arlo batzuetan baino emakume gehiago aritzen al diren galdetu zien Eneritz Albizu moderatzaileak Azpeitian hizlariei. Agirrek erantzun zion aurrena, eta hark hainbat ikerketa aipatu zituen: "Erantzun batzuk badira, baina ez da erraza. Egia da, euskalduntzen ari diren pertsonen artean emakumeak gehiago direla. Horrez gain, lanbide feminizatuetan, hala nola, hezkuntza-eta, euskarak presentzia handiagoa du. Zaintzari dagokionez ere, amaren hizkuntzak indar handiagoa duela seme-alabengan diote zenbait ikerketek. Ez ama abila delako genetikaz, partekatzea kostatzen delako. Garrantzia du amak transmititzen duen hizkuntzak". "Prestigio kontua" dela ere esan zuten. "Gune euskaldunetan prestigioa du euskarak, eta euskara transmititzen du amak. Emakumeak prestigioa lortzeko hizkuntza behar du. Duela 30 bat urte gazteleraz egiten zuten, ama prestigioduna izateko kalean, nahiko desprestigiatuta zeuden eta. Gizonak prestigioa badu, eta berdin du zer hizkuntzatan aritzen den. Hori bai, toki euskaldunetan lehialago dira neska gazteak. Izan ere, neskak arauak betetzeko hezten dira, eta euskara erabiltzen dute".

Agirreraren ustez, hizkuntza hautuak eta generoak "lotura" dute. "Ez dakit emakumeak gehiago diren -gintzetan, baina transmisioa emakumeen esku dago. Tradizioz emakumeek egin dituzte lanak, eta gizonek egindakoan, plazara ateratzen dira. Hizkuntzarekin ere gertatu da hori, baina aldatzen ari da. Emakumea eremu batean sartzen da eta desprestigiatu egiten du. Eremu hori ja ez da hain garrantzitsua".

Eskisabelek "zer egin euskararekin?" galdera bota zuen: "Post-gatazka garai honetan, feminismoak tresna onak ditu borrokatzeko. Euskalgintza, berriz, tresna zaharrekin geratu da. Euskara euskal hiztun izatearekin lotzen da, eta hori ez dakit egokia den diskurtsorako. Euskalgintzak asmatu behar du, hizkuntza demokrazia arazo terminoetara ekarri behar da.

Eskubide terminoetara", gaineratu zuen. Haren ustez, herritarrak "kontziente" dira hizkuntza borrokarekin, baina ez feminismoarekin. Hor dago Hondarribiako alardearen kasua-eta...". Ildo beretik mintzatu zen Agirre. "Euskara ulertu daiteke justizia sozial moduan, sub diren gainerako gaiekin batera. Hiztunona arazo demokratikoa da. Euskal hiztuna behar bezala ez badute hartzen, iraintzen bada... demokrazia zalantzan jartzen da".

Agirrek uste du feminismoak hizkuntza ere "barneratu" behar duela: "Feminismoak baztertu dezake arraza? Eta, hizkuntza? Euskal hiztunak tokia markatu behar du gizartean, baina zenbait tokitan ez du lekurik. Ia beti boteretik aparte dago, eskubide gutxiagorekin. Feminismoak hizkuntza ere barneratu behar du. Arazoa da emakumearena eta euskararena ere bai. Auzi politikoa da. Borroka plazan jokatzen da. Ez da garrantzitsua niretzat, baizik denentzat, Euskal Herriarentzat, munduarentzat... Diskurtso politikoan txertatu behar da", dio Agirrek.

Estrategiak elkarbanatzeko tenorean al daude bi mugimenduak?

Eskisabelen iritziz, momentu interesgarrian gaude, "postgatazka" esan zaion garaian lurpean geratutako gaiak azaleratu direlako. Feminismoa loraldian ikusten du, eta aldiz, euskalgintza diskurtsoa berrabiarazi beharrean. Eta agian, garaia da diskurtsoa nortasunaren bidetik garatu beharrean herritarren eskubideen ildotik bideratzea.

Beolari gauza jakinetarako estrategiak elkarrekin lantzea ondo iruditzen zaio, eta gogorarazi zuen dagoeneko hainbat eztabaida berbera izan dituztela bai mugimendu batek eta bai besteak. Esate baterako, mugimenduaren erakundetzearen debatea feminismoan eta euskalgintzan, bietan garatu da.

Agirre pertzepzio batetik abiatu zen: gizartean ez ote den feminismoaz gaizki hitz egitea politikoki inkorrektuagoa hizkuntzaren gainean gaizki hitz egitea baino. Feminismoa indartsu ikusten du, eta aldiz, hizkuntzaren normalizazioa indarra galtzen ari dela uste du; hizkuntzaren normalizazioak asko hartu dezake feminismitik. Mugimendu feministak praktikaz harago diskurtsoa egin du eta euskalgintza diskurtsoa galtzen ari da. Hizkuntzaren aldeko borroka problematizatu behar dela uste du, plaza publikora, politikora eraman. Agirreren iritziz, feminismoak oso ondo daki hori egiten.

Euskalgintzak molde berriak behar al ditu?

Eskisabelek uste du "lehen absoluto ziren gauzak orain erlatibo" direla. "Pentsamendua garaikidetu egin da, eta ez da birpentsatu. Egokitu beharra dugu", esan zuen. Agirrek dio "azpian dagoenak" egiten duela beti irakurketa: "Espainiar hiztunek ez dute egingo irakurketa. Kapital linguistikoa dute. Hizkuntza horretan hitz egiten duenak ez du iritsi edo esan beharrik. Ez du ibili behar aldiro kanpotik datozen frogak aprobaten. 'Ez gara inposatzaileak, baina egin espainolez eskatzen dugunean' da diskurtsoa. Aniztasuna da

klabea, eta ez monolingvistika, hizkuntza hegemonikoek egiten duten moduan". Agirreraren iritziz, "ezin da onartu hizkuntz komunitate bezala desorekatzen gaituen ezer", eta hizkuntzak izan behar du helburu edo bitarteko.

Agirrek dioenez, "euskarak jartzen zaitu jarrera kritiko eta jarrera ez hegemonikoetan": "Onartzen badugu berdintasuna lortzeko kapitalismoaren alde borrokatu behar dela, euskarak iraungo al du sistema horretan? Zaila, kulturaren hegemonizazioa hor dagoelako. Sortzaileen aurkako jarrera. Sortzaile izan behar du euskarak eta ez kontsumitzaile". Eskisabelek ere bide horri eutsi zion, "hegemonian dagoenaren begietatik ez dago ageriko debekurik" esanaz.

3.2 Zergatik euskararen eta feminismoaren arteko aliantza bat?

BERRIAk, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel eta Mari Luz Esteban elkartu zituen feministen eta euskal hiztunen arteko aliantzaren ideiarekin inguruan sakontzeko. Horren berri eman zuen Maite Asensiok propio idatzitako artikuluan (2015eko martxoaren 8an, BERRIAko Maite Asensio Lozano kazetariak Lorea Agirre, Idurre Eskisabel kazetariak eta Mari Luz Esteban antropologoa elkarrizketatu zituen. Elkarrizketa osoa sarean irakurri daiteke).

Zer ikas dezake euskalgintzak feminismitik? galderari erantzunez, Idurre Eskisabelek argi dauka, "Teoria feministak euskarari egin diezaiokkeen ekarpen baliagarrienetako bat da zapalkuntza moduen irakurketa: naturalizazio prozesua dago hiztunon kasuan ere. Batzuetan, paralelismoak garbiak izan daitezke: emakumea natura, emozioa, irrazionala dela esaten den bezala, euskarari buruz —eta susmoa daukat hizkuntza gutxitu guztiez ere— esaten da basatia dela, egitura eta jakintza zibilizatoriotik kanpokoak, etxeari eta emozioei lotua... Hau da, eremu publikotik kanpoko funtzioetarakoa. Pentsamendu hori Iparraldean, Frantziaren menpeko eremuan, oso indartsua da."

Bere iritziz, praktika gorpuztuak aztertzea ere beste ekarpen bat izan daiteke. Izan ere subalternitatearen kontrako praktika, emakume gisa baino, hiztun gisa egiten zaio zailagoa. Gorputzean oso sartuta dauka Eskisabelek bestearen deserosotasuna.

Pertsonala politikoa dela ere euskarara ekar genezake. Baina kontrako joeran omen goaz: "kontsumitzaileen hizkuntza eskubideei buruzko dekretua ez dute betetzen enpresa gehienek, eta politika publikoen arduradunen erantzuna izan da herritarrek ez dutela halakorik eskatzen: pertsonalera eramaten dute auzia, dimentsio politikoa kenduz".

Deserosotasunaren ideia ere azpimarratzekoa da, izan ere, Mari Luz Estebanentzat ideia hau oso interesgarria da. "Deserosotasunean bizitzen ikasi behar dugu, pentsatu behar dugu sanoa dela; izan ere, ez feminista, ez euskaldun bezala, ez da posible eroso bizitzea. Kontrakoa gezurra da".

Hegemoniatik kanpo gauzak ikusi eta aztertzearen garrantziaz ere aritu ziren eta bereziki Lorea Agirrek azpimarratu zuen ideia hau “hegemoniatik kanpo egoteak ematen dizu beste begirada bat, gizarte harremanak nola gertatzen diren ulertzeko beste modu bat. Minorizatua izatearen kontzientzia edukitzeak ematen dizu kritikotasun hori, sekula horrelako egoera bat bizitzan, gorputzean, bizi izan ez duen beste pertsona baten aldean. Eta niretzat hori aberastasun bat da, ez akats bat. Baina gauza bat da jabekuntzaren ondoriozko ibilbide indibiduala, eta beste bat praktika kolektiboa. Feminismoak eta euskalgintzak hori irakatsi digute: jardun eta pentsamendu kolektiboak, pluralak eta politika publikoak. Hau da: ez da nire problema, ez da gure problema, baizik eta gizarte osoarena. Justizia sozialarekin zuzen lotzen den problema bat da: demokrazia gutxi edukitzearen ondoriozko arazoa da guztioi eskubide berdinak ez bermatzea.”

Agirrek azpimarratzen du, politika publikoak ezinbesteko direla oxigenozko egoerak sortzeko, hau da, genero edo hizkuntza eskubideen urratzeak gertatuko ez diren lege babesa emateko eta praktikak arautzeko.

Teoria feministaren inguruan hausnartzerakoan, Mari Luz Estebanek teoria feminista orokorrean aurreratuago dagoela uste du “sofistikatuagoa da, gehiago hausnartu da, konplexuagoa da, identitatea ulertzeko modu diferenteak ahalbidetzen ditu... Euskaldunak gara, feministak gara, beraz, erabil dezagun feminismoaz dakiguna euskararen munduan. Biak uztartzeak baliagarria izan behar luke: gure gizartean dauzkagun baliabide teoriko guztiak erabili, ez gorde konpartimentuetan, feminismoak soilik feministentzat balioko balu bezala”.

Aipagarria baita feminismoaren teorizazio eta praktikaren inguruan egiten duten hausnarketa, izan ere teorizazio eta praktika honetatik euskalgintzak asko ikas dezakeela uste dute. Eta komeni zaiola asko ikastea gainera.

Adibide batekin argitu nahi izan dute euskalgintzak baduela zerbait berezia, izan ere emakume gehiago dago euskalgintzan beste mugimendu sozialetan baino “Adibidez, nire amaren belaunaldiarentzat, militantziarako esparru baimendu ia bakarra —baldin eta ez bazinen apurtzailea eta feminista— euskalgintzarena zen: ikastolak-eta. Segur aski, EAJK markatutako ildotik, umeen eta kulturaren zaintzarekin lotuta. Baina, era berean, ekarri zien kalean egoteko eta hainbat gauza egiteko ohitura bat” Idurre Eskisabelek dioen bezala.

Honekin lotuta, Lorea Agirrek ikerketa batzuen arabera oxigeno askoko lekuetan euskarari leialenak emakumeak eta, aldi berean, neska gazteak direla argitzen du “eskolan, badirudi mutilek dutela joera handiagoa gazteleraz egiteko, neskek baino. Beste faktore bat aipatzen da hor: emakumeei exijitzen zaien arauetikiko fideltasuna, zintzotasuna, asko ikastea... eta gizonei onartzen zaie izan daitezen errebelde, grazioso, tranpati, eta arauak ez betetzea”. Baina alderantziz ere gertatzen omen da “ Teresa del Vallek zuzendutako taldeak azaldu zuen Mujer vasca liburuan (Teresa del Valle: 1985): emakumeok, prestigio gabeko genero bat garenez, eta plaza publikora saltoa eman behar dugunean armatu egin behar garenez,

askotan, armatzen gara hizkuntza hegemonikoa hartuz eta etxekoa utziz. Alegia, prestigio gabezia hizkuntza hegemonikoaren prestigioarekin betez. Gizonezkoek, askoz prestigio handiagoa dutenez berez, beren hizkuntza euskara izanda ere, plaza publikoan hobeto eutsi diezaiokete; ez ditu hainbeste desprestigiatzen. Hizkuntza baten prestigioaren edo prestigio ezaren ideia iruditeria kolektiboan txertatzen da. Adibidez, buru ezgaitasunen bat duten ume askori ez diete hizkuntza transmititu, familia euskaldunak izan arren, sinetsita minorizazio bat gehiago erantsi behar ziotela umeari”.

Feminismoak Euskal Herrian egin duen ibilbidearen inguruan hausnartuz eta egun duen egoerari erreparatuz, Mari Luz Estebanek uste du Euskal Herrian oraindik feminismoa, emakumeen arazoez arduratzen den teoria eta praktika gisara ulertzen dela oraindik. “Unibertsitatean, oro har, gizonak ez dira ari irakurtzen emakumeek egiten dutena; soilik behartuta daudenean. Diskurtso politikoki zuzena badaukate, baina ez dute hausnartzen teoria feministaz, feminismoak ez omen die ezer irakasten, eta hor arazo bat dugu. Oro har, aparte gaude, bide paraleloetan gaude askotan. Hor ere badago oinarri bat: emakumeek egiten dugunak balio sozial txikiagoa dauka, oro har, eta jendeak irakurri nahi du balioa duena, ez ustez bigarren mailako den zerbait.”

Idurre Eskisabel kezkatuta azaltzen da azkenaldian abertzaletasunetik eta euskalgintzatik gertu zabaltzen ari den mezu batekin “euskaldun zahar pribilegiatuaren kontzeptua, hau da, euskararekin jaiotzen garenon pribilegioarena, ohartu behar dugulakoan Euskal Herri guztia ez dela horrelakoa, badirela eremu euskaldunak eta ez-euskaldunak, denentzat ez dela abiaburua.”

Pribilegioen inguruan hitz egiterakoan, injustizia sozialaren giltza direla zehaztu nahi izan dute “nork dauzkan eta nork ez dauzkan, bai generoan, bai hizkuntzan. Hizkuntzaren praktikan, gaztelaniaren hegemonia ikaragarria da. Eta uste dut guraso euskaldunok gehiago arduratzen gaituela gure seme-alabek gazteleraz ez badute ondo egiten, eta ez hainbeste alderantziz, euskara maila kaskarra edukitzeak. Eta generoan ere, agian, antzeko zerbait gertatzen ari zaigu, eta erreprodukzioan erortzen gara sarritan gure seme-alabak hezterakoan”.

Honen aurrean, boterearen ideia berrikustearen alde azaltzen dira, izan ere, feminismoak neurri batean egin duela uste baitute “oro har, jarraitzen dugu pentsatzen batzuek boterea dutela eta beste batzuek ez, baina boterea ez da estankoa, ez da bertikala... askoz konplexuagoa da. Eta sektore batzuek, nahiz eta oso azpiratuak egon, momentu batzuetan botere handia eduki dezakete. Horixe baietz. Orduan, boterea ulertzeko modu zabal eta konplexuago horretan sartzen da batek erabiltzea normalean "mendekotasunean jartzen duen ezaugarri bat boterea lortzeko. Emakume batzuek lortzen dute lan bat, emakumeak direlako, baina horrek esan nahi du berdintasuna dagoela? Ez. Horrek esan nahi du salbuespen batzuk badaudela.”

Baina jarrera aktiboa kontra izatea gerta daitekeela ohartaraztea nahi izan dute “nik beti esan dut hizkuntza bat ikastea kostu bat dela, eta egiten duenari izugarritzko esker ona agertu behar zaiola. Baina ohartzen ari naiz badagoela jende bat ez duena ikasi nahi, eta jarrera politiko aktibo bat duena kontra. Matxismoarekin ere pareko mugimendua gertatzen ari da. Gaur egun ez dago debeku espliziturik gure artean, ez sexu-genero sisteman, ezta hizkuntzaren arloan ere; beraz, egiten ez baduzu beti da zuk nahi ez duzulako”.

Feminismoan zentratuz, feminismoak beti eduki duela begirada desberdinak integratzeko edo, gutxienez, artikulatzeko ahalmena azpimarratu nahi izan da “interseksionalitate horretan arraza, migrazio eta beste eskusio sozialetara hurbildu da, eta bide horretan hizkuntza minorizatuaren defentsara ere iritsi behar da”.

Idurre Eskisabalek argi utzi nahi du ideologikoki interesatzen zaiela esatea borroka hauek elkarrekin joan behar dutela.

Izan zaitezke feminista euskaldun izan gabe? Galderaren aurrean, beste galdera batzuk planteatzen ditu Mari Luz Estebanek “izan zaitezke euskalduna eta burgesa? Edo euskalduna eta enpresaria? Horixe baietz. Ez dakit galdera hori askorik gustatzen zaidan; nora eramaten gaitu? Subalternitateen arteko uztarketa lantzeko ideia interesgarria izan daiteke, baina politikaz hausnartzeko... zalantzak ditut. Zirrikituak baitaude: zu ez zara feminista une oro, kontraesanik gabe, modu konpaktu batean... Beste gauza bat da alderdi politikoen esparrua: ezkerreko alderdi bati eskatu behar zaio feminismoa kontuan hartzeko. Baina pertsonen portaera, indibidualki, konplexuagoa da”.

Biak uztartzeko zalantzak dituzte “baina zertarako uztartu biak? Euskararen praktikak areagotze hutsagatik? Izan daiteke, baina niri pixka bat motz geratzen zait. Euskararen berreskurapen prozesuan gaude, hau da, neurri batean, statu quo-aren kontrako bidea egiten, feminismoak bezala. Soilik euskara normalizatzeko ari gara? Edota euskararen aldeko borroka baliatuz, balio positiboa duen zerbait gehiago lortzen saiatuko gara? Ni ia konbentziturata nago euskararen berreskurapenak beste subalternitateekin lotuta joan behar duela ezinbestean; hor bermatuko dela, neurri handi batean, euskararen biziberritzea”.

3.3 Euskalgintza eta feminismoa

Zarauzko Putzuzulo gaztetxean solasaldi interesgarria egin zuten Onintza Irureta, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelek feminismoa eta euskalgintzaren inguruan (Sare feminista, Presio-eltzea eta Korrika kulturalaren eskutik, Onintza Irureta Azkune Argiako kazetaria, Lorea Agirre Dorronsoro Jakin aldizkariko zuzendaria eta Idurre Eskisabel Larrañaga antropologoa eta irakaslea feminismoaz eta euskalgintzaz solastu ziren Zarauzko Putzuzulo gaztetxean 2015eko martxoan. Solasaldiko bideoa Argiak argitaratu zuen eta sarean dago ikusgai).

Bertako solasaldian hainbat kontu interesgarri aipatu ziren eta nik, solasaldian jasotako ideia interesgarrienak hemen zerrendatu ditut:

- Feminismoak erakusten duen gizon emakume arteko desberdintasun egoera hori onartu edo ulertzeko modua zabalduagoa dago.
- Feminismoak lortu du nolabait jendartean eskubideen eta askatasunen terminoetan diskurtso bat izatea. Ekarri du eskubide, demokrazia eta justiziaren terminoetara. Eta euskararen hizkuntz gatazkan hortik urrunago gaude, askoz ere gehiago egiten da irakurketa intransijentziatik, itxitasunetik...
- Euskal hiztunok badugu "elebidunak garela" eta hizkuntza gatazka bat sortzen denean betik dago komunikaziorako bidezidor bat. Feminismoaren kasuan edo genero gatazka bat sortzen den kasuan, beharbada, pertsona horrek ez du bidezidorrik egoera edo arazo horri buelta eman eta beste modu batean jartzeko.
- Euskalgintzarekin gatazka zamatu dugu eta honek nekearen zama dauka eta pentsamendua berritzeko beharra dauka, egokitze behar bat.
- Feminismoak identitate lausoak erakargarri egiten jakin izan du, deseraikuntza egiten.
- Feminismoak asmatu du jaso, elikatu eta gaia plaza publikoan jartzen.
- Euskalgintzan barrua: geldialdiarena, diskurtso berriak lantzeko premia, iparra falta dela... bezalako terminoak entzuten dira. Feminismoaren kasuan, justu kontrakoa, belaunaldi aldaketa bat eman dela, gazte asko daudela, sare zabal eta anitza dagoela, zenbait hedabidetan sartzea lortu dela, gizartean indar egiten dutela. Bat oso apal ikusten da eta bestea berriz gora datorrela. Oso diferente sumatzen dira.
- Feminismoak diskurtso postmodernoagoa egitea lortu du. Euskalgintza oraindik modernitatetik ari da.
- Euskara gaia politizatu egin behar da, ekarri behar da eskubideen alorrera, demokraziaren kontzeptura.
- Bat izan behar da euskaldun izan nahi duelako eta mementu honetan ez da hainbeste euskaldun izatea baizik eta egitea. Zerbait aktiboa, beraz hautua, beraz borondatea, beraz eskubide bat da beraz demokrazia ariketa bat da beraz esan nahi du feminismoan oso kontzientea den gauza bat onartzea guk ere eskubidea.

- Euskalgintzan planteatzen dugu beste borroka batzuekin eskutik helduta bide hori egitea.
- Guk esaten badugu, feminismoak ezin dituela legeak jaitsi hizkuntza gatazkaren aurrean. Zergatik? Azken finean Euskal hitzun gisa bizi nahi izateak eta praktikatzek, gizartean leku baten kokatzen zaitu eta beste toki batean ez. Solifikazioa edo nahi duzun bezala deitu. Emakume bezala ere, leku batzuk debekatuta izango dituzu eta beste batzuk ez. Alde horretatik oso pareko dira. Kokatzen zaitu leku batean edo bestean.
- Feminismoak asko praktikatu du, beste literatur edo subalterniaren borroketan begiak jartzen, halaberrez, izan daiteke razialitatea, pobrezia, klase soziala.... Izan ere arrazaren arabera gizartean toki batean egongo zara eta beste batean ez, klase sozialaren arabera toki batean zaude edo beste leku batean ez, etorkina baldin bazara toki batzuetara iritsiko zara eta beste batzuetara ez. Hitzun bezala ere leku batzuetan sartuko zara eta beste batzuetan ez. Beraz borroka horiek artikulatu daitezke. Eta feminismoak ere hizkuntzari begiratu behar dio, zeren mekanismo berdinarekin kokatzen zaitu gizartean.
- Zapalkuntza bikoitza eta hirukoitza behin eta berriro sortzen den gaia da. Eta hizkuntza zapalkuntza nazio zapalkuntzarekin erabat lotuta dago.
- Euskalgintza eta feminismoa lehenago ere alderatu izan dira zapal dutako mugimendu gisa. Zer izango litzateke kasu bakoitzean jabetzea, ahalduntzea eta boteretzea. Lau dira: jakitea (injustizia edo desberdintasun hori bizi duzula), jabetzea (konturatzea), ahalmentzea (jabetu eta gero gai izatea horri aurre egiteko) eta boteretzea izango litzateke termino askoz soziopolitiko edo zabalagoa (izango litzateke prozesu bat abian jartzea injustizia edo eskubide galera hori sortzen dituzten eremu diferentek kontuan hartuta, politikoak, psikosozialak, kognitiboak... horiek denak kontuan hartuta prozesua edo ekimena abian jartzea. Hori da feminismotik jasotzen duguna eta hori aplikatu daiteke mugimendu eta borroka gehienei.
- Urratsak markatzea inportantea da.
- Euskalgintzak gehiago du ikasteko feminismotik, alderantziz baino.
- Feminismotik, Euskararen diskurtsoa edo praktika eskubide sozialetara ekartzea. Bazterketa edo subalternidade edo minorizazio prozesuetan dauden agente, ekimen, pertsonak, emakumeak, berdintasun planora ekartzeko aukera gehiago eman behar dira. Hori da azken finean politika, desberdintasun planoan dagoenari aukera gehiago eman, justizia soziala praktikan jarri. Ez da indibiduala, baizik eta politika kontua da.

Politika feministen kontua da eta hizkuntza politiken kontua da. Bereziki plano horretan jokatzeko delakoa. Politika horiek egokiak edo politika horietan asmatu ezkeroko sortu behar dute oxigenoa, hiztun bezala arnasa hartzeko eta emakume bezala berdintasun planoan aritzeko.

- Euskaingintzak asko du ikasteko feminismitik. Euskaldunek orokorrean teoria oso baneraturuta daukagu baina gero pentsamendu, desira eta ekintzen artean jausi handia dago. Batez ere gorputz eta emozioetan teorizatu eta arakatu duenetik asko du ikasteko. Emozioen eta gorputzaren teoriak ekar ditzake argi asko prozesu horiek ulertu eta eguneroko egoerei buelta emateko.
- Euskararen diskurtsoa askotan elikatu da arrazoitzen desberdintasunetik, gu desberdinak gara, gu diferenteak gara, gu ez gara espainolak... eta momentu honetan diskurtso horri buelta eman behar zaio, ez dugu euskaraz egiten diferente izateko, euskaraz egiten dugu berdinez izateko.

3.4 Gizonak eta feminismoa: botereari uko egiteko ordua

Larrun aldizkariko 196. alean argitaratutako mahai-inguruan Miren Aranguren Bilgune Feministako kideak, Jokin Azpiazu soziologoak eta Ander Bergara Emakundeko kideak parte hartu zuten. Mahaiaren bueltan berriz hainbat galdera: berdintasunaren bide horretan, non kokatzen dugu eta kokatu behar dugu gizonok geure burua? Baliagarriak al dira gizon taldeak? Nola jokatu behar dugu benetan harreman orekatuak garatzeko eta ildo horretan zer dute hobetzeko herri mugimendu eta antolakundeek? Jabetzen al gara ditugun pribilegioez eta zeintzuei eta nola egin behar diegun uko? Ala ez gaude horretarako prest? Azken finean, posizio hegemonikoa utzi eta bigarren lerrora igarotzea erasotzar hartzen du hainbatek.

Jarraian, gizonaen egoera erdaldunen egoerarekin parekatzeko saiakera eginda, mahai-inguru horretatik ateratako hainbat ideia eta galdera interesgarri puntuz-puntu:

- Berdintasunaren bide horretan, non kokatzen dute eta kokatu behar dute erdaldunek euren burua?
- Nola jokatu behar dugu benetan harreman orekatuak garatzeko?
- Erdaldunek pribilegioak dituzte? Jabetzen al dira euren pribilegioez eta zeintzuei eta nola egin behar diete uko? Ala ez gaude horretarako prest?
- Posizio hegemonikoa utzi eta bigarren lerrora igarotzea erasotzat hartzen du hainbatek

- Erdaldunen posizioa ez da eroso eta deserosotasun produktiboa sortzea izan behar du helburua
- Gai politikoa da
- Zer egin erdaldunek eurek diseinatu ez duten zerbaitetan parte hartzeko?
- Biktimizazioan erortzeko joera
- Berdintasunak zein onura ekarriko ligukeen ikusten saiatzen gara, baina ez galerak. Galerak egon badaude
- Mugimendu feministak ez ditu behar gizon taldeak. Euskararen normalizazioak erdaldun taldeak?
- Erdaldunek ezer ez dutela egin behar pentsatzeko arriskua dago. Arazo bat dago eta horren parte dira
- Rol hitza bigunegia
- Ikasketa prozesua sistemikoa eta egiturazkoa da. Sistemari egozten diogu arazoa, sistema aldatzean aldatuko dira erdaldunak
- Eredu neoliberallean norberak du aldatzeko gaitasuna, baina hori ez da horrela. Egitura sistemikoa denez, horrez gain beste gauza askok hartzen dute parte.
- Nik uko egin diezaioket nire pribilegioei, baina hori bera pribilegio bat da. Hori boterean dagoenak baino ezin du egin. Zein pribilegiori egingo diozu uko? Parekoak uko egiteko eskatzen dizun pribilegio horiei, etxeko harremanetatik hasita esparru kolektiboetaraino. Bestela, norbere buruarekin ondo sentitzeko ariketa bat da.
- Inertzia batzuk errepikatzeari uztea gauza garrantzitsua da
- Ez da hainbeste dagoen hori berdintzea, dagoena eraldatzea baizik.
- Herri mugimenduak ez daude hain juxtu botere egituraren erdigunean eta kohesio beharrak bultzatuta aldaketak ikuspegi atsegin eta lasaiaz egiten saiatzen gara, eta onargarria eta beharrezkoa da, baina momenturen batean aldaketa sakonak planteatu beharko ditugu: adibidez, halako botere gunetan ez da gizonik sartuko datozen bost urteetan, osasun demokratikoagatik, goazen proba egitera eta ea zer gertatzen den ikustera
- Gatazka mahaigaineratu beharra
- Sortuko dugun horren ezezagutzak eragiten digun beldurragatik, atzera egiten dugu
- Diskurtso sinpleak behar dira

- Boterea beti oldartzen da mugak jartzen zaizkionean
- Zaila bada ere, pentsatzen hasi behar dugu zein momentutan egin behar dugun atzera eta zein momentutan aurrera.
- Min hori pentsatzeko eta kudeatzeko tresnak behar ditugu, ez dadin bihurtu min hori biktimizazio eta diskriminazio ikur (diskriminazio hitza ere oso arin erabiltzen baitugu)
- Gakoa da behin eta berriz arazoa azaleratzea
- Pedagogia eta ahalegina garrantzitsua da, baina beste neurri batzuk ere planteatu behar dira

4. ELKARRIZKETA PERTSONALAK

Lana osatzeko bi aditu elkarrizketatu ditut, Lorea Agirre eta Mari Luz Esteban, hurrenez hurren. Helburua, gai honen inguruan aurretik jasotako guztiak kontrastatu eta aurrera begira jorratu daitezkeen bide desberdinen inguruan zuzenean beraiekin hausnartzea izan da. Horretarako elkarrizketa bideratuen metodologia erabili dut, honek aukeratutako bi adituekin nituen zalantzak zuzenean argitu eta beraiekin batera etorkizuneko lan ildoak izan daitezkeen inguruan elkarlanean hausnartzeko aukera ematen zidalako.

Elkarrizketak egiteko gidoi bana erabili dut eta elkarrizketa egin aurretik beraiei bidali diet, elkarrizketei ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoarekin. Eranskinean ikus daitezke erabilitako gidoiak, izan ere bi gidoi desberdin erabili baitira. Lehenengo elkarrizketa Lorea Agirreri egin nion, eta hasierako asmoa biei galdera-sorta bera egitea bazen ere, Mari Luz Estebanen elkarrizketari begira, lehenean jasotako ideia batzuk berarekin osatzeko aukerak, galdetegia egokitzeko tartea eman zidan.

Beraz, aurretik aipatu bezala, hauek izan dira aditu gisa elkarrizketatuak:

- **Lorea Agirre Dorronsoro** (Beasain, Gipuzkoa, 1968)

Kazetaria eta antropologoa da, Informazio Zientzietan lizentziaduna. Euskaldunon Egunkarian eta Berrian kazetari ibilia da. Euskararen eta euskal kulturaren inguruko ikerketetan parte hartu du Mondragon Unibertsitatean, Huheziko Sorguneak ikerguneko ikertzailea baita. Huhezin bertan, irakasle ere izan da. 2014tik Jakin aldizkari zuzendaria da.

- **Mari Luz Esteban** (Pedrosa de Valdeporres, Burgos, 1959)

Medikuntzan lizentziaduna eta giza antropologian doktorea. Familia mediku gisa lan egin zuen 1984tik 1996ra. 1994tik giza antropologiako eskolak ematen ditu. Antropologia feministan eta medikuntzaren antropologian aditua da.

4.1 Elkarrizketetatik jasotakoak

Elkarrizketetan gai desberdinen inguruan luze eta zabal hitz egiteko aukera izan dut bi adituekin eta ondorengo lerroetan, aztertutako gaiak eta hauen inguruan duten iritzia aurkeztuko da:

Desnaturalizazio prozesua

Lorea Agirrek azaltzen duen bezala, feminismoak egin duen gauza garrantzitsu bat, desnaturalizazio prozesua da. “Emakumea deseraiki egin du, emakumea zer uste genuen zela edo zer esaten ziguten zela, alegia, jaiotzez eta genez emakumea dago dagoen tokian bere tokian emakume jaio delako, arrazoi biologikoak kasik. Emakumea izatez delako horrela, zaintzara bereziki bokazioa duelako, biologiak behartzen duelako umeak heztera, etxeko lanetara, jende dena zaintzera, goxo izatera... hori da pixka bat patriarkatuaren oinarria eta orduan emakumearen lana izango da erreprodukzioa, alegia, lan sistemarako neska mutilak sortzea baina horrek ez du punturik balio berez ez da ordainduko, ez du ezertarako balio, ez du presentzia sozialik ez du, ez du prestigiorik... inportantea da produkzioa, lana, ordaintzen dena, publikoki eta beste dena ez dute baloratu. Feminismoak egiten duena da hori markatu eta horren gainean eraikitzen da gure sistema kapitalista osoa. Alegia, emakumeek zaintzan eta umeak izaten egin duten lana, hori ordaindu gabe eta kontuan hartu gabe horren gainean eraikitzen da gainontzeko guztia. Eta gero egiten du desnaturalizatu emakumearen irudia. Emakumea ez da jaiotzen horrela, ez da genetiko, ez da ezer. Baizik eta pertsona libre, kultura baten hazten den jendea da. Libre kulturak egiten zaitu, hemen edo Pakistanen jaio eta Ipar Poloan jaio, diferentean izango ginateteke eta behar, ardura eta gatazka desberdinak izango genituzke pertsona bera izanda ere. Egiten du hori desnaturalizatu. Hori da nire ustez feminismoak ekarri duen iraultza potenteena. Horrek askatasun eremu bat ematen dizu, pertsonak gara beraz egin dezakegu. Orain arte pentsatu diren emakumeen lanak egin ditzakete gizonek eta guk egin ditzakegu gizonezkoen lanak. Sailkapen horrek ez dauka zentsurik. Horrek euskalgintzari balio dio topikoak deseraikitzeke. Beharrezko da hori egitea. Ez dago hizkuntza zail edo errazik...”

Mari Luz Esteban Loreak esandakoarekin bat dator baina desnaturalizazioa feminismoan oso lan zaila dela uste du, zailena “feminismoak eskatzen dizu zure bizitza berrikustea. Zu benetako feminista zara hasten zarenean zure bizitzan ere hori integratzen, bestela ez da posible, kontraesan handiak sortzen dira. Desikaste prozesua oso zaila da feminismoan, adibidez gizonek pribilegioak ematea edo emakumeak prest egotea ulertzeko parte hartu behar dutela.... Oso zaila da. Euskalgintzan errazagoa da, errazagoa da ulertzea ni erdalduna naiz eta utzi behar diet euskaldunei eta minimo horiek zehaztea errazagoa da. Feminismoan prozesu luzetxoa eskatzen dizu. Euskalgintzak ez dizu hainbeste auzitan jartzen zure bizitza, edo ez zure bizitza guztia eta feminismoak bai. Euskaran zu erdalduna zara, mantentzen duzu giro erdaldun bat baina zaude prest euskaldunekin elkarbizitza egiteko. Hor euskalgintzak abantaila izan dezake.”

Kontsentsua

Lorea Agirrereren ustetan kontsentsua zerbait desiragarria da baina zalantzan jartzen du kontsentsu hori edozein prezioan lortu behar ote den “Feminismoak kontsentsuaren bidea

hartu izan balu gauza asko ez lituzke lortuko, hori egia da. Alde bakartasuneko bidea hartu du, hau da, guk egingo dugu eta gainera arrazoia dugu. Euskararekin ere askotan ikusi izan dugu hori. Askotan minimoetatik behera, ezin dugu inor deseroso jarri, halabeharrez kontsentsu eta gatazka elkarrekin joan behar dira.

Mari Luz Estebanek azpimarratu nahi du “gero sortzen dira beste arazo batzuk feminismoarekin. Gutxieneko hori lortzen duzu baina gero kontrako oso jarrera sotilak lortzen dira. Problema berriak sortzen dira”.

Ardura dutenak, jarrera malgua baina aldi berean sendoa izatea feminismoarekin edo euskararekin funtsezkoa iruditzen zaio Mari Luza Estebani “aterkia baduzu, gero mugak ere izango dituzu baina aterkia hor duzu eta azpikoek onartu beharko dute.”

Feminismoan protokoloak ezarrita

Euskalgintzak ez bezala, feminismoak protokoloak eginak ditu eta hori da Loreak esaten duena “hau da, nola funtzionatu lanean, edo unibertsitatean... esaterako, protokolo sinple batzuk badaude bilera batean emakume eta gizonak egonda emakumeak hitz egingo duela bermatzeko. Feminismoak lortu du leku batzuetan horrelakoak sartzea, udaletxeetan, lantaldeetan.”

Mari Luz Estebanek ez du batere argi ikusten kontu hau “protokoloak oso minimoak dira. Gehiago lortu da emakumeentzako espazioak eta zerbitzuak baina gero udal dinamiketan eragina oso sinplea da. Iritzi publiko bat badago baina oso txikia da.” Estebanen iritziz euskalduna feminismoarekin apur bat itsututa gaude “Berria hartu ezker, Euskal Herrian feminismoa oso presente dago, baina kontuz, dago oso presente zirkulu batzuetan, gero ikusi beharko zen zer lortzen den, baina zuk beste egunkari bat hartzen baduzu, ez dago hain presente. Eredugarria izan daiteke baina gauza batzuetan agian euskararekin gehiago lortu da.”

Konplizeen beharra

Feminismoan joera ez da izan gizonak gero eta gehiago kontuan hartzea. Gehiago egiten ari gara orokorrean, emakumeentzako espazioak, emakumeen eskubideak... eta orduan gizonekin zer egingo dugu?

Erdaldunak hurbiltzeko ahalegin bat egin guran baina hori euskaldunekin egin behar dugu? Mari Luz Estebani feminismoan konplizearen figura oso garrantzitsua iruditzen zaio, “gizon batzuk konplize gisa jokatzeko dute edo konplizeak dira eta hori interesgarria iruditzen zait eta hori erdaldunekin ere erabili daiteke. Euskararen arloa hartzen badugu, eremu asko

egongo dira non erdaldunak bakarrik dauden, hor ez baditugu konplizeak ez dugu ezer egiten.”

Eremu mixtoak

Mari Luz Estebanek feminismoan emakumeen espazioak egon behar direla uste du baina eremu mistoak egotea oso inportantea iruditzen zaio. “Gauza batzuetan emakumeak eta gizonezkoak egotea oso garrantzitsua da eta hor ez hainbeste indar ez gaude jartzen eta iruditzen zait funtsezkoa. Euskalgintzan ere horrelako zerbait planteatu daitekeela uste dut eta eremu batzuetan euskaldunak eta erdaldunak batera jarri.”

Gatazkak

Pentsatu izan da borroka feministak gatazkari ez diola beldurrik izan eta euskalgintzak askotan bai. Feminismoak, momentu batean esan behar bada esan egiten da, aurrez aurre jarriko dira, hitz egingo dute... eta badirudi euskalgintzak askotan ihes egiten duela horretatik, pixka bat ahuldade handiagoa erakutsi da.

Lorea Agirreren ustetan “Feminismoaren taktika neurri batean izan da gatazka probokatzea, izan ere gatazka, injustizia ikusarazteko modu bat baita. Hitzunen planora ekarrita, gatazka probokatzea, problematizatzea da, justizia sozialera ekartzea. Esplizitatzeko modu bat da (orain Lutxo Egia egiten ari dena).”

Mari Luz Estebanek gai honekin kontu handia izan behar dugula uste du “guk eragin ditugun gatazketan, orokorrean, zuk bazenekien atzetik talde handia zegoela, jende asko borrokatzen edo aldarrikatzen zenuen horren alde zegoela, gai oso maioritarioak dira. Horrek ematen dizu indarra, legitimizazio bat. Feminismoaren gatazkan zuk badakizu emakume asko dagoela atzean eta horrek indarra ematen dizu.”

Mari Luzek onartzen du, euskalgintzarekin alderatuz, feminismoan badagoela borrokarako jarrera bat “feminista sartzan zara eta borrokalaria zara berez eta euskaltzalea bazara ez zara borrokalaria, gehiago zara hiztun bat, hori egia da. Feminista izatea nortasun moduan ekintzaile izatea da maila baten eta euskaltzale izatea ez da lotzen derrigorrez borrokarekin. Feminista moduan identitatea ematen dizuna ekintzarako prest egote hori da. Euskararekin askotan amore ematen dugu eta erdarara pasatzen zara”.

Elebitasunaren diskurtsoa

Badago jendea elebitasunarekin euskararen normalizazioa ez dugula lortuko pentsatzen duena, ez delako orekatu eta ez delako errealia ikusten. Baina bestalde badago jendea

pentsetan duena, elebitasuna dela lortu behar dena eta nola lortzen den ez zaiola inporta. Hizkuntzaren sortze eremua ez dute asko baloratzen. Eta euskararen kasuan normalizatuko baldin bada, ezinbestekoa da sortze kopuruak gorakada bat izatea bestela alperrik ari gara itzulpengintzan oinarrituta. Elebitasuna barruraino sartuta dagoen zerbait da eta badirudi normalizatuta dagoela dokumentu bat ele bitan badago.

Lorea Agirrerri gaia nola ikusten duen galdetuta zera esaten digu “ekosistema orekatuak sortu behar dira. Euskaraz sortzen dena, lekuan lekuko eta baldintzen arabera, euskaraz sortzen dena ez da itzuliko. Nahi duenak itzulpena eskatu egin beharko du. Euskara hegemonian egon behar da eta horrek eskatzen du batzuetan elebidun garela ahaztea. Pribilegioen buelta ematea da, hau da, pribilegiatua izango zara elebidun bazara. Hizkuntza oxigenoa izan dadila, arnastea behartu. Gure arazoa da doblea gara linguistikoki eta erdia kontsideratzen gaituztela. Bi jakitek sobeltarnidadean jartzen gaitu eta bat dakienak gainean dago. Lutxo Egian ariketa da (Lutxo Egia idazle eta performerrak, hilabetez uko egin dio hizkuntza hegemonikoa erabiltzeari. Izan ere, arau sozialak ikusaraztea eta haiekin jolastea da *Bi-lingual: transitoak* performancearen helburua. 31 egunez gaztelaniaz hitz egin gabe biziko da idazlea gaztelania nagusi den Bilbon, eta bititakoak kontatuko ditu egunez egun blogean. Euskaraz baino ez da arituko, eta ingelesez ere bai ezinbestekoa denean. Ez da salaketa politiko bat izango, ordea, oinarri politiko duen esperimendu artistiko bat baizik) esatea ni ez naiz elebiduna, hilabete batean elebakarra izango naiz, baina euskalduna eta hor sartzen da kontraesana eta hor sortzen da gatazka. Holakoetan ere egitea da esateko, gu ez gara elebidunak, ikustea zein gauzatan izan gaitzkeen elebakar euskaldunak eta horrek ze deserosotasun sortzen duen eta deserosotasun hori produktiboa den. Oso ondo identifikatzea holako praktika batzuk.”

Euskaldunen mezuak gaztelera zabaltzeko beharra

Mikel Irizar Radio Euskadira pasatu zenean komentatu zuen zein garrantzitsua zen euskaratik funtzionatzen duen jende bat gaztelaniaz aritzea, eremu horretako jendea nolabait erakartzeko, euskaratik funtzionatzen duen jendearen ikuspuntua. Guk oso gutxi egiten dugu hori.

Lorea Agirre ere iritzi berekoa da “zerbait gehiago egin daiteke, ez nuke gure lan zentroa horretan jarriko baina garrantzitsua iruditzen zait erdaldunek, hedabideetan bereziki gure mezua entzutea. Guk elikatu behar ditugu. Gurea behintzat entzun behar dute. Hor ere deserosotasun produktiboa sortzera joan behar zara. Eskubide sozialen diskurtsoa interesgarria da, ez hainbeste euskaldun eta espainolen arteko desberdintasuna adieraztera baizik eta zeintzuk diren demokratik eta zeintzuk ez. Hau izan daiteke modu bat jendea interpelatzeko”.

Eskubide sozialen diskurtsoa

Eskubide sozialen diskurtsoari garrantzi handia ematen dio Lorea Agirrek “ez badaukazu ekosistema eta diskurtso gogor bat, edo motibatzen zaituen lortura bat komunitate bat, herri bat edo etorkizun bateko zera horrekin, hor beste elementu bat, eta hau feminismotik ikasi duguna, eskubide sozialen diskurtsora eramatea. Alegia, dagoeneko ez da erdaldunak versus euskaldunak. Taldea da eskubideen alde daudenak eta eskubideen kontra daudenak, demokratak eta ez demokratak. Zu zergatik egon behar zara euskararen alde? Ba eskubide bat delako, zuk dituzun beste hainbat eskubide sozial eta justizia sozialeko ekintza bat delako, ez horrenbeste euskaldun izan behar duzulako. Identitarioa jende askori ezin diozu hori exijitu, ez dutelako, orduan beste atxikimendu bat. Portaeretan kontzientzia gogorrakin ezin zarenean sartu eta ekosistema bat sar daitezten edo osatu dadin, izan daiteke eskubideen planora ekartzea. Hori da feminismoak egin duena eta momentu honetan indar hartzen ari dena, pentsatuz demokrazia dela izan dezakegun sistema egokiena.”

Bere esanetan “feminismoak asumituta dauka eskubideak galdu eta irabazi egiten direla eta hori gu gatozen munduarentzat galera bat bezala bizi daiteke. Irabazteko asko izan dezakezu baina galtzeko ere, adibidez, abortoaren legearekin gertatu da, aurreratu da ikaragarri eta gero galdu egiten da. Asumitu behar da borroka egin behar dela. Borroka hau izan liteke inklusiboagoa edo erdaldun euskaldun ez praktikante guzti horiek ekartzeko balio dezakeen diskurtso bat izan daiteke.”

Eta honela jarraitzen du “feminismoa plano demokratikora etorri da, hori dena borrokatzera, plano publikora borrokatu du, plazara atera da eta aldi berean funtzionatu du, neurri batean, oso modu identitarioan. Alegia, gu, euskaldunok, euskal hiztun komunitate horretan sinisten dugunok jokatu izan dugun moduan, alegia, emakumeak egingo dugu borroka molde bat, gizonezkoak etorriko dira edo ez, gune propioak sortuko dira emakumeenak bakarrik, guk gure burua landuko dugu, gure diskurtsoa egin... zentzu horretan oso identitarioak dira.”

Hori euskarara ekarrita, euskaldunak hartu behar ditugu ardatz eta bakarrik euskaldunak? Etorriko dira etorri behar badira? Lorea Agirreren esanetan “bi eremuak landu behar dira, bat, eskubide planoko kontu bat da, justizia sozialekoa da hizkuntzaren normalizazioa, berreskurapena, hizkuntzaren ezagutza unibertsala eta doanekoa eta aldi berean, hori maila teoriko edo hizkuntz politika izan litekeena gero maila praktikoan oso kontuz izan behar da eta hori feminismoak izan du, guneak non kolokatzen ditugun eta gune horietan nor dauden. Orduan, inklusiboa da eskubideen alde dagoen guztia sartzen duelako, baina aldi berean praktika horiek beti izan behar dute orekatzaileak.

Uko egitearen kontzeptua

Mari Luz Estebani uko egitearen kontzeptua funtsezkoa iruditzen zaio euskaldun eta erdaldunekin lantzeko, “erdaldunak, ez da bakarrik urratsak ematea ikastearen alde, prest

egon zuk ez badakizu edo dakizun mailan, arlo batzuetan ez zarela egongo, talde batzuetan ez zarela egongo, dena ez duzula ulertuko, uko egite ahalmen hori interesgarria iruditzen zait euskararekin. Euskara ez jakinda, galduko dituzu gauza asko, batzuk ez daude prest galtzeko edo aitzakia bat da eta beste batzuk onartzen dute eta puntu. Uko egite ideia hori interesgarria iruditzen zait lantzeko”.

Uko egite bera ere pribilegioa izan daiteke norberaren ikuspegitik egiten bada. Berez asmatu edo feminismoan lortu nahi dena da, feminismoak eskatzen dion horri uko egitea eta ez nik nahi dudana honi. Abiapuntua ez naiz ni, taldea da.

Gutxiengoak adosteko beharra

Mari Luz Estebanek gutxiengo batzuk zehaztearen garrantzia azpimarratu du “Feminismoan nahiko onak izan gara, gure artean gutxiengo batzuk adosten. Euskaltzaleen artean ez dakit hori egiten den. Feminismoan, esaterako, abertzaleak eta ez abertzaleak, instituzionalistak eta ez instituzionalistak... kapazak izan gara askotan denak batzeko, oso inportantea izan da feminismoan eta Euskal Herrian bereziki izan gara gai hori egiteko, minimo horietara heldu gara. Gatazkekin, eztabaidekin baina jakin izan dugu hori egiten hasieratik gainera, 70. hamarkadan hori egiten genuen. Euskalgintzan betik egon da arazo gehiago.

Feminismoa zergatik izan den gai hau egiteko galdetzean, Mari Luz Estebanek argi dauka “70. urteetan feminista asko egin ziren partiduetako militanteak. Feminismora sartu ziren batzuk bidalita. Feminismoa kontrolatzera joan ziren eta egin ziren feminista eta hori beraientzako izan zen oinarritzkoa, nortasun horrek gailendu zuen bestea.”

Paradigma partzial batetik paradigma unibertsal batera

Feminismoak egin duena da esatea ez da gure problema, baizik eta gizakion problema da. Paradigma absolutu bat da gizartearentzat. Euskararekin egin daiteke hori? Euskara gaur egun partziala da, bai agendan, bai politiketan... euskarak egin dezake diskurtso bat esanez, gu ez gara partzialak, unibertsalak gara?

Lorea Agirreren ustez “feminismoak esaten du emakume berdinzalea bizi den lekuan bizi ahal du edonork, guretzako ona dena ona da guztiontzako. Emakumea da pertsona izateko modu bat. Guk esan dezakegu euskara da pertsona, humano, gizaki, herritar izateko modu bat. Unibertsaldu dezakegu gure diskurtsoa. Saio bat egin beharko genuke baina horretarako euskarak ezin du solik hizkuntza bat eskaini ezta komunitate bat, eskaini behar ditu gauza gehiago, eskaini behar ditu borroka, justizia borroka bat den bezala, eskaini behar du beste justizia borroketan egon behar dela. Eta beste justizia borroka horiek euskaratik pasa beharko dira baldin eta benetan justiziakoak badira, hemen eta orain eta ez Albazeten.”

Mari Luz Esteban berriz ez dago paradigma honekin ados “denok irabazten dugula esaten dugunean, hori ez da egia. Egia da ikuspegi sozial batetik, idealizatua bai, gizarteak irabazten du baina batzuk galtzen dute. Gizon batzuk galduko dituzte pribilegioak, emakume batzuk galduko dituzte pribilegioak. Hori oso argi geratu da alardearen kontura. Emakume batzuk ez dira ados egon, beraien interesen kontra joan delako. Zuk esan dezakezu euskarak ematen dio munduari aberastasuna, bai baina oso idilikoa iruditzen zait. Diskurtso hori ez zait oso konbentzitailea iruditzen.”

Berdintasunaren kontzeptua

Berdintasunaren onurak zeintzuk diren azaltzen saiatzen gara baina galerak ez. Ahalegin bat egin beharko genuke berdintasun horrek pribilegioak galtzea ekarri dezakeela azaltzen.

Mari Luz Estebanek argi dauka “gauza batzuetatik kanpo geldituko zara ez badakizu euskaraz, edo ez bazara emakumea. Ez bazara emakumea eta muga bat badago gizon gehiago ezin dira sartu. Hor lehia bat dago gizon eta emakumeen artean edo euskaldun eta erdaldunen artean. “

Asimetriaren ideia

Mari Luz Estebanek gustuko duen ideia baten berri ematen du “asimetrian ez dakigula bizitzen komentatu zuen norbaitek eta ideia hori asko gustatu zitzaidan. Bai feminismoan eta baita euskalgintzan ere. Hemen landu ez den gako bat dela iruditzen zait. Pentsatu dezakegu nortzuk bizi diren asimetrian eta hori aztertzea, ikusi nola lantzen duten. Gizartearen isla bat izan daiteke. Lutxo Egiaren permormancean ikusi dezakegu hori, posible dela asimetrian bizitzea.”

Deserosotasun produktiboa

Feminismoak lortu duela esan daiteke eta nola lortzen den galdetzean Lorea Agirrek argi du “kontuan hartu behar da feminismoak emakumeekin egin du lan, lehenengo gatazka emakumeei sortzen die. Orduan zentzu horretan emakumeak interpelatzeko dituzte nahiko fuerte eta gero gatazka horretatik sortzen da jabetzea eta jabetze horretatik interpelatzeko dira gainontzeko pertsona guztiak. Deserosotasun kontu bat betik behar da, baina hori oreka kontu bat da.”

Eta honela osatzen du ideia “askotan muga politikoak, egiturazkoak ez dizute uzten. Burujabetza politikoak, leku bat non euskara inposatu daitekeen. Euskara arau bat da, berez hor ez du inork zalantzan jartzen. Horren faltak askotan zailtzen gaitu gure praktikak martxan jartzea. Agian enpresa batek jokatu dezake hizkuntza alorrean burujabe, zentzu horretan?”

Ahalduntzearen diskurtsoa

Euskaingintza eta feminismoa lehenago ere alderatu izan dira zapal dutako mugimendu gisa. Zer izango litzateke kasu bakoitzean jabetzea, ahalduntzea eta boteretzea?

Lorea Agirrek honela azaltzen digu "lau dira: jakitea, injustizia edo desberdintasun hori bizi duzula, jabetzea, konturatzea, ahalmentzea, jabetu eta gero gai izatea horri aurre egiteko eta boteretzea izango litzateke termino askoz soziopolitiko edo zabalagoa, izango litzateke prozesu bat abian jartzea injustizia edo eskubide galera hori sortzen dituzten eremu diferenteak kontuan hartuta, politikoak, psikosozialak, kognitiboak... horiek denak kontuan hartuta prozesua edo ekimena abian jartzea. Hori da feminismitik jasotzen duguna eta hori aplikatu daiteke mugimendu eta borroka gehienei."

5. ONDORIOAK

Euskalgintzaren barruan geldialdiarena, diskurtso berriak lantzeko premia, iparra falta dela... bezalako terminoak entzuten dira. Feminismoaren kasuan, justu kontrakoa, belaunaldi aldaketa bat eman dela, gazte asko daudela, sare zabal eta anitza dagoela, zenbait hedabidetan sartzea lortu dela, gizartean indar egiten dutela. Bat oso apal ikusten da eta bestea berriz gora datorrela. Oso diferente sumatzen dira.

Horretaz baliatuz, euskararen normalizazioari begira eta erdaldunen mundu hori aktibatzeke, feminismoan interesgarriak eta baliogarriak izan daitezkeen estrategiak eta diskurtsoak aztertzen saiatu naiz gai honetan aditu eta aritu desberdinekin.

Eta azterketa horren ondorioz, ausartzen naiz esatera, feminismoa eta euskalgintzaren artean sinergiak eraiki daitezkeela. Hori bai, bidea elkarrekin egitekotan, elkarren berri izan behar dute bi munduek: ongi ezagutu behar dituzte elkarren helburuak, interesak, oztupoak, mugak... Eta elkarren estrategiak konpartituz, bat non egin dezaketean aztertu eta landu beharko dute.

Hurrengo puntuan lanerako interesgarriak izan daitezkeen lanerako ildoen berri emango dut. Honela, euskalgintzaren ikuspuntutik garrantzitsuak izan daitezkeen lan ildo desberdinak aurkeztuko ditut.

5.1 Lanerako ildoak

Lanerako hipotesi batzuk proposatu nahi izan ditut atal honetan. Hipotesiak baino ez dira, eta horiek baieztatzeko, baztertzeko edo berriz formulatzeko ikerketa eta egitasmoez espezifikoak beharko genituzke, zalantzarik gabe. Izan ere, orain arte ez da gaiaren inguruko azterketa sakonik egin, eta ezagutza-eremu honetan sakontzeko, beharrezkoa da ikerlerro berriak abian jartzea. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zait honako hauek kontuan hartzea:

- **Desnaturalizazio prozesua ematea**

Feminismoan erronka nagusi bat nola defenditu alde batetik emakumearen egoera baina aldi berean nola deseraiki zer den emakume izatea, gizon izatea... Erronka bera euskalgintzan. Alde batetik nola defenditu euskal hiztunen eskubideak, nola ulertu euskal identitatea askoz modu konplexuagoan, malguagoan, nola deseraiki hori. Mugimendu hori ematen ari da eta feminismoa lagungarri izan daiteke.

- **Gatazka probokatzea aurrera egiteko tresna da**

Feminismoaren taktika neurri batean izan da gatazka probokatzea, izan ere gatazka, injustizia ikusarazteko modu bat baita. Hitzunen planora ekarrita, gatazka probokatzea, problematizatzea da, justizia sozialera ekartzea. Eta horixe da hain zuren ere egin beharko genukena.

Esplizitatzeko modu hori orain Lutxo Egia egiten ari den performancean ikusi daiteke eta hori izan daiteke jarraitu beharko genukeen bidea.

- **Kontsentsua desiragarria da**

Kontsentsua zerbait desiragarria da baina ez edozein preziotan. Ikusi ahal izan da, feminismoak kontsentsuaren bidea hartu izan balu gauza asko ez lituzkeela lortuko. Horren ordeaz alde bakartasuneko bidea hartu du, hau da, guk egingo dugu eta gainera arrazoia dugu.

Euskararekin ere askotan ikusi izan dugu hori. Askotan minimoetatik behera ibili gara, izan ere ezin dugu inor deseroso jarri... halabeharrez kontsentsu eta gatazka elkarrekin joan behar dira eta hori asimilatu beharra daukagu.

- **Pribilegioei buelta eman**

Garrantzitsua izango da pribilegioei buelta ematea, hau da, sinistea eta jakitea pribilegiatua izango zarela elebidun bazara. Klabea izango da euskaraz aritze hori pribilegiatzea eta horren inguruko praktikak martxan jartzea.

- **Protokoloen bidea landu**

Feminismoak protokolo batzuk eginak ditu eta protokolo sinple batzuk izanda ere, lortu du leku batzuetan horrelakoak sartzea.

Euskalgintzan ez dago horrelakorik beraz interesgarria izan daiteke bide hau jorratzea.

- **Euskaldunak-erdaldunak paradigma berraztertu beharra**

Dagoeneko ez da erdaldunak versus euskaldunak. Taldea da eskubideen alde daudenak eta eskubideen kontra daudenak, demokratak eta ez demokratak. Zu zergatik egon behar zara euskararen alde? Ba eskubide bat delako, zuk dituzun beste hainbat eskubide sozial eta justizia sozialeko ekintza bat delako, ez horrenbeste euskaldun izan behar duzulako.

Identitarioa jende askori ezin diozu hori exijitu, ez dutelako, orduan beste atxikimendu bat. Portaeretan kontzientzia gogorrakin ezin zarenean sartu eta ekosistema bat sar daitezten edo osatu dadin, izan daiteke eskubideen planora ekartzea. Hori da feminismoak egin duena eta momentu honetan indar hartzen ari dena, pentsatuz demokrazia dela izan dezakegun sistema egokiena.

Feminismoak asumituta dauka eskubideak galdu eta irabazi egiten direla eta hori gu gatozen munduarentzat galera bat bezala bizi daiteke. Irabazteko asko izan dezakezu baina galtzeko ere. Asumitu behar da borroka egin behar dela. Borroka hau izan liteke inklusiboagoa edo erdaldun euskaldun ez praktikante guzti horiek ekartzeko balio dezakeen diskurtso bat izan daiteke.

Feminismoa plano demokratikora etorri da, hori dena borrokatzera, plano publikora borrokatu du, plazara atera da eta aldi berean funtzionatu du, neurri batean, oso modu identitarioan. Alegia, gu, euskaldunok, euskal hiztun komunitate horretan sinisten dugunok jokatu izan dugun moduan, alegia, emakumeak egingo dugu borroka molde bat, gizonezkoak etorriko dira edo ez, gune propioak sortuko dira emakumeenak bakarrik, guk gure burua landuko dugu, gure diskurtsoa egin... zentzu horretan oso identitarioak dira.

Hori euskarara ekarrita, euskaldunak hartu behar ditugu ardatz eta bakarrik euskaldunak? Etorriko dira etorri behar badira? Bi eremuak landu behar dira, bat, eskubide planoko kontu bat da, justizia sozialekoa da hizkuntzaren normalizazioa, berreskurapena, hizkuntzaren ezagutza unibertsala eta doanekoa eta aldi berean, hori maila teoriko edo hizkuntz politika izan litekeena gero maila praktikokoan oso kontuz izan behar da eta hori feminismoak izan du, guneak non kolokatzen ditugun eta gune horietan nor dauden. Orduan, inklusiboa da eskubideen alde dagoen guztia sartzen duelako, baina aldi berean praktika horiek beti izan behar dute orekatzaileak.

- **Diskurtso unibertsala landu**

Feminismoak esaten du emakume berdinzalea bizi den lekuan bizi ahal duela edonork, hau da, guretzako ona dena ona da guztiontzako. Emakumea da pertsona izateko modu bat.

Guk esan dezakegu euskara dela pertsona, humano, gizaki, herritar izateko modu bat. Unibertsaldu dezakegu gure diskurtsoa. Saio bat egin beharko genuke baina horretarako euskarak ezin du soilik hizkuntza bat eskaini ezta komunitate bat, eskaini behar ditu gauza gehiago, eskaini behar ditu borroka, justizia borroka den bezala, eskaini behar du beste justizia borroketan egon behar dela. Eta beste justizia borroka horiek euskaratik pasa beharko dira, baldin eta benetan justiziakoak badira, hemen eta orain.

- **Gutxiengo batzuk zehaztu beharra**

Feminismoa, nahiz eta gatazkekin eta eztabaidekin, gai izan da minimo batzuk zehazteko. Denak batu eta gutxiengoak zehazteko gaitasuna izan du.

Euskalgintzan beti egon da arazo gehiago horretarako, horregatik da hain garrantzitsua gutxiengo batzuk zehaztea.

- **Ahalduntzearen diskurtsoa**

Feminismotik jasotzen dugun diskurtsoa, euskalgintzan ere aplikatu dezakegu. Hau da, jakitea, injustizia edo desberdintasun hori bizi duzula, jabetzea, konturatzea, ahalmentzea, jabetu eta gero gai izatea horri aurre egiteko eta boteretzea izango litzateke termino askoz soziopolitiko edo zabalagoa, izango litzateke prozesu bat abian jartzea injustizia edo eskubide galera hori sortzen dituzten eremu diferentek kontuan hartuta, politikoak, psikosozialak, kognitiboak... ondoren, horiek denak kontuan hartuta prozesua edo ekimena abian jartzea.

- **Hizkuntza botere elementu gisa**

Hiztun eta hizkuntza desberdinen arteko pribilegio diferentzia bat dago, beraz botere bat jokatzeko da hizkuntza erabiltzen den aldiro eta normalki, nahiz eta botereak asko izan, botere maila desberdinak topatzen ditugu.

Hizkuntza, pribilegioak gordetzeko erabiltzen dugu. Hizkuntza bada gauza bat, zu plano publikoan kolokatzeko. Denok gabilta gure burua nola prestigiatu, nola eroso sentitu, nola lasai bizi, nola ekosistemara moldatu... eta horretarako hizkuntza asko erabiltzen da eta hizkuntza minorisatua dagoen tokian praktika asko daude horri lotuta. Hemen ez dago proposamen orokorrik, hemen joan behar da lekuan lekukoa ikusten.

Prestigioa tarteko, badago belaunaldi bat askotan plazara gaztelaniaz atera dela, bere burua beste huts batzuk edo gizarteak beste subalternidade batzuk ezarri dizkiolako.

- **Jarduera fisikoa eta jarduera kultural-politikoaren harremana**

Jarduera fisikoa eta jarduera kultural-politikoaren arteko harremanak tradizio luzea du gurean, baina hala ere, oso gutxi ikertu den fenomeno da. Jai giroan ematen diren harreman sozialak eta bizipen kolektiboak oso inportanteak dira, horietan ematen diren bizipenak direla eta, eta horrek eragin handia du helburuaren atxikimenduarekiko.

- **Elebitasunaren diskurtsoa**

Euskararen kasuan normalizatuko baldin bada, ezinbestekoa da sortze kopuruak gorakada bat izatea bestela alperrik ari gara itzulpengintzan oinarrituta. Elebitasuna barruraino sartuta dagoen zerbait da eta badirudi normalizatuta dagoela dokumentu bat ele bitan badago.

Honen aurrean ekosistema orekatuak sortu behar dira. Euskaraz sortzen dena, lekuan lekuko eta baldintzen arabera, euskaraz sortzen dena ez da itzuliko.

- **Euskaldunen gune propioak sortu behar dira**

Garrantzitsua da euskaldunentzako gune propioak sortzea. Komunitate edo lobbyak sortzea.

- **Problematizatzeko beharra**

Garrantzitsua da hizkuntzak sortzen digun minaz hitz egitea (bizipenak, beldurrak...), esplizitatzea. Tentsioa egon badago, azaleratzea onuragarri izan daiteke, aurrera pausuak emateko lagungarria.

Korapiloak askatzea garrantzitsua da, egin beharreko ariketa. Hortik aurrera agian planteatu daiteke, pertsona guztiek eskubide berdinak, hiztun guztiek eskubide berdinak. Hiztunak plano desberdinetan badaude hizkuntzaren arabera, praktikak ere izango dira desberdinak. Batek pribilegioak galdu beharko ditu baina ulertuko da zergatik egiten den, egiten da hizkuntzaren alde eta ez pertsonaren kontra. Justiziaren alde egiten da.

6. BIBLIOGRAFIA

- Agirre, Lorea (2015). *Euskal kultur transmisioa: Lorea Agirre Zamalloa Akizu Beñatek egindako elkarrizketaren audioa*, <http://www.info7.com/2015/04/28/euskal-kulturaren-transmisioa-7> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Agirre, Lorea eta Eskisabel Idurre (2015). *Feminismoa eta euskaltzaletasuna, "bi borroka eremu, elkar ukitzen dutenak"*. Uztarriko kazetariak egindako elkarrizketaren artikulua, <http://uztarria.eus/aktualitatea/1424866591> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Agirre Lorea eta Esteban Mari Luz (2015). *Emakumeek asko dute esateko euskarari buruz* euskararen ekintzak biltzen dituen EITBko blogean argitaratua, <http://www.blogseitb.net/euskara/tag/mari-luz-esteban/> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Agirre Lorea, Eskisabel Idurre eta Irureta Onintza (2015). *Euskalgintza eta Feminismoa*. Argian argitaratutako solasaldiaren bideoa, <http://www.argia.eus/multimedia/solasaldiak/euskalgintza-eta-feminismoa> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Agirre Lorea, Eskisabel Idurre eta Esteban Mari Luz (2015). *Bazterretan elkartuta*, Asensio Lozano Maitek Berrian idatzitako artikulua, http://www.berria.eus/paperekoa/1963/016/001/2015-03-08/bazterretan_elkartuta.htm 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Agirre Lorea, Eskisabel Idurre eta Beola Ainhoa (2014). *Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?* Irureta Onintzak bere blogean idatzitako artikulua, <http://www.argia.eus/blogak/onintza-irureta/2014/10/31/izan-zaitezke-feminista-euskaltzale-izan-gabe/> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Agirrezabala Marta, Amuriza Xabier, Barcenilla Miguel Angel, Erasun Arantxa, Gratakos Isaure, Jurado Nekane, Legade Ann-Marie, Frank Roslyn M., Stürtze Alizia eta Zirilda (2009). *La mujer en Euskal Herria (hacia un feminismo propio)*. Basandere argitaletxea.
- Arakistain Joana, Oruesagasti Goizargi eta Otaegi Aizpea (2014ko iraila): *Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena*. BAT aldizkaria.

- Del Valle, Teresa (1985): *Mujer Vasca. Imagen y realidad*, Anthropos argitaletxea.
- Egia, Lutxo (2015): *Transitoak: Transitoak performancearen bloga*. Berria argitaratutako bloga <http://www.berria.eus/blogariak/transitoak/> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia
- Esteban, Mari Luz (2012): *Feminismoa, euskaragintzarako gogoeta-tresna?*. Udaltopeko ponentziaren aurkezpena. www.udaltop.com 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Esteban, Mari Luz (2012). *Jabekuntzaz feminismitik hausnartzen*. Zeberio Mikeldi eta Zumalde Eliasek Lantalanen argitaratutako artikulua, <http://www.lantalan.com/lantalan/jabekuntzaz-feminismitik-hausnartzen> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Esteban, Mari Luz (2015). *Feminismoan landutako gaiak baliagarriak dira euskalgintzarako ere*. ETBko Tribuaren berban saioan Kike Amonarrizek egindako elkarrizketa <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/oso/3168952/bideoa-feminismoa-eta-euskalgintza-mari-luz-estebanen-hitzetan/> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Euskal Herriko 2000. urteko emakume martxarako plataforma (2000). *2000 arrazoi martxan jartzeko*. Bilbon argitaratua
- Garcia Idiakez, Mikel (2015eko martxoa). *Gizonak eta feminismoa. Botereari uko egiteko ordua*. Larrun aldizkaria, 196. zk.
- Herrera Gómez, Coral (2011). *Más allá de las etiquetas*. Txalaparta argitaletxea
- Irazustabarrena, Nagore (2002ko martxoak 10). *Zer da gaur egun feminista izatea?*. Argia aldizkaria, 1845. Alea
- Izar Gorri, (2013ko martxoak 26). *Euskal Herriko Feminismoaren historia laburra*. Euskal historia sozialistaren blogean argitaratutako artikulua <http://euskaliraultzasozialista.blogspot.com.es/2013/03/euskal-herriko-feminismoaren-historia.html> 2015eko uztailan azkenengoz ikusia.
- Solé Romeo, Gloria (2011). *Historia del feminismo (siglos XIX y XX)*. Eunsa argitaletxea.
- Varela, Nuria (2005). *Feminismo para principiantes*. Ediciones B argitaletxea

7. ERANSKINAK

7.1 Lorea Agirrerri elkarrizketa

Lorea Agirrerri egindako elkarrizketan, honako galdetegi hau erabili zen oinarri gisa:

- Feminismoak identitate lausoak erakargarri egiten jakin izan du, deseraikuntza egiten. Hori egingarria da euskalgintzan? Nola?
- Feminismoak asmatu du jaso, elikatu eta gaia plaza publikoan jartzen. Euskalgintzak ez du asmatu, zer falta zaio plaza publikora eramateko? Nola egin beharko genuke? Non dago klabea?
- Euskara gaia politizatu egin behar da, ekarri behar da eskubideen alorrera, demokraziaren kontzeptura. Nola egiten da? Nola egin beharko litzateke hori?
- Bat izan behar da euskaldun izan nahi duelako eta momentu honetan ez da hainbeste euskaldun izatea baizik eta egitea. Zerbait aktiboa, beraz hautua, beraz borondatea, beraz eskubide bat da beraz demokrazia ariketa bat da beraz esan nahi du feminismoan oso kontzientea den gauza bat onartzea guk ere eskubidea. Nola lortu egitea? Erdaldun baten egite hori zer da euskara ikastea?
- Euskalgintza eta feminismoa lehenago ere alderatu izan dira zapal dutako mugimendu gisa. Zer izango litzateke kasu bakoitzean jabetzea, ahalduntzea eta boteretzea. Lau dira: jakitea (injustizia edo desberdintasun hori bizi duzula), jabetzea (konturatzea), ahalmentzea (jabetu eta gero gai izatea horri aurre egiteko) eta boteretzea izango litzateke termino askoz soziopolitiko edo zabalagoa (izango litzateke prozesu bat abian jartzea injustizia edo eskubide galera hori sortzen dituzten eremu diferentek kontuan hartuta, politikoak, psikosozialak, kognitiboak... horiek denak kontuan hartuta prozesua edo ekimena abian jartzea. Hori da feminismitik jasotzen duguna eta hori aplikatu daiteke mugimendu eta borroka gehienei. Hori nola lortu daiteke?
- Kantsentsuaren izenean hizkuntza gutxiesten dute. Zer egin daiteke egoera hau gainditzeko? Zein estrategia erabili daiteke?
- Mugimendu feministek ez ditu behar gizon taldeak (Miren Aranguren, Bilgune Feministako kidea). Euskararen normalizazioak erdaldun taldeak behar ditu?
- Erdaldunek pribilegioak dituzte? Jabetzen al dira euren pribilegioez eta zeintzuei eta nola egin behar diete uko? Ala ez gaude horretarako prest?

7.2 Mari Luz Estebani elkarrizketa

Mari Luz Estebanekin, Lorea Agirre elkarrizketatu ostean egon ginenez, galdetegia osatu zen. Hemen elkarrizketa egiteko erabilitako gidoia:

- Feminismoa oso gogoeta tresna interesgarria da euskalgintzan. Zergatik?
- Feminismoan erronka nagusi bat da nola defenditu alde batetik emakumearen egoera baina aldi berean, nola deseraiki zer den emakume izatea, gizon izatea... Erronka bera daukagu euskalgintzan, nola ulertu euskal identitatea askoz modu konplexuagoan, nola deseraiki hori. Egun mugimendu hori ematen ari da eta feminismoa lagungarri izan daiteke. Nola?
- Euskaldunok gehiegi begiratzen diogu legeei eta ez horrenbeste portaerei eta mentalitateei. Feminismoan portaeran araberako sailkapenik egin da? Eta egin bada, zertarako egin da?
- Feminismoak identitate lausoak erakargarri egiten jakin izan du, deseraikuntza egiten. Hori egingarria da euskalgintzan? Nola?
- Feminismoak asmatu du jaso, elikatu eta gaia plaza publikoan jartzen. Euskalgintzak ez du asmatu, zer falta zaio plaza publikora eramateko? Nola egin beharko genuke? Non dago klabea?
- Euskara gaia politizatu egin behar da, ekarri behar da eskubideen alorrera, demokraziaren kontzeptura. Nola egiten da? Nola egin beharko litzateke hori?
- Bat izan behar da euskaldun izan nahi duelako eta momentu honetan ez da hainbeste euskaldun izatea baizik eta egitea. Zerbait aktiboa, beraz hautua, beraz borondatea, beraz eskubide bat da beraz demokrazia ariketa bat da beraz esan nahi du feminismoan oso kontzientea den gauza bat onartzea guk ere eskubidea. Nola lortu egitea? Erdaldun baten egite hori zer da euskara ikastea?
- Euskalgintza eta feminismoa lehenago ere alderatu izan dira zapal dutako mugimendu gisa. Zer izango litzateke kasu bakoitzean jabetzea, ahalduntzea eta boteretzea. Lau dira: jakitea (injustizia edo desberdintasun hori bizi duzula), jabetzea (konturatzea), ahalmentzea (jabetu eta gero gai izatea horri aurre egiteko) eta boteretzea izango litzateke termino askoz soziopolitiko edo zabalagoa (izango litzateke prozesu bat abian jartzea injustizia edo eskubide galera hori sortzen dituzten eremu diferentek kontuan hartuta, politikoak, psikosozialak, kognitiboak... horiek denak kontuan

hartuta prozesua edo ekimena abian jartzea. Hori da feminismotik jasotzen duguna eta hori aplikatu daiteke mugimendu eta borroka gehienei. Hori nola lortu daiteke?

- Kotsentsuaren izenean hizkuntza gutxiesten dute. Zer egin daiteke egoera hau gainditzeko? Zein estrategia erabili daiteke?
- Mugimendu feministek ez ditu behar gizon taldeak (Miren Aranguren, Bilgune Feministako kidea). Euskararen normalizazioak erdaldun taldeak behar ditu? Noraino erabiltzen ari gara, adibidez, erdaldunak konplize gisa?
- Erdaldunek pribilegioak dituzte? Jabetzen al dira euren pribilegioez eta zeintzuei eta nola egin behar diete uko? Ala ez gaude horretarako prest?
- Feminismoak protokoloak eginak ditu. Euskalgintzan nola egin daiteke hau?